Como ya ha quedado reflejado en el contexto de estas alegaciones, la encomienda deriva del hecho de que existe una única unidad constructiva indisoluble, compuesta por el aparcamiento y Polideportivo y siendo esta segunda la de mayor entidad, es por lo que se hace la encomienda referida.

Todo ello hace concluir que resulta errónea la apreciación del Tribunal, en tanto en cuanto a la falta de encomienda, como en relación con la de que Bilbao Kirolak ha realizado un cometido (construcción y explotación de aparcamiento), fuera de las competencias del artículo 5º de sus Estatutos.

En este segundo apartado, porque Bilbao Kirolak no ha realizado, ni realiza explotación alguna del aparcamiento, además de que no acomete una construcción autónoma de una instalación que le resulta competencialmente ajena.

⁷ Respuesta del TVCP: El documento referido es la respuesta del Ayuntamiento a Bilbao Kirolak aprobando los Pliegos de prescripciones económico administrativas de la concesión del aparcamiento. En ningún caso existe un Acuerdo de Encomienda.



Lo único que ha acometido es una instalación deportiva, y como ésta estaba unida de forma indisoluble con un aparcamiento sito bajo rasante, ha atendido una encomienda del Pleno Municipal para acometer una actuación complementaria, que de otro modo resultaría de muy difícil gestión

Además, conviene hacer hincapié en la especial naturaleza del contrato de obras de polideportivo y concesión de obras del aparcamiento para residentes. En dicho contrato aparecen dos tipos de obligaciones, cada una de distinta naturaleza, pero a su vez indiscutiblemente complementarias. Por esta razón se conciben y tramitan ambos contratos como una unidad.

Así pues, para salvar la unidad de los contratos cuya competencia, en principio, correspondería a ámbitos o áreas distintas del ayuntamiento, se procede a elevar el compromiso de su aprobación al Pleno. De tal forma que ambos compromisos quedan formalmente validados y por lo tanto, correctamente encomendados sobre la base de un acto expreso, tal y como exige el artículo artículo 15 del TRLCAP.

ALEGACIÓN

(ii) No consta el estudio de Viabilidad, de acuerdo con lo previsto por el artículo 227 del TRLCAP.

En relación con esta consideración del Tribunal de Cuentas, debe señalarse que el contrato licitado no es un contrato de concesión de obras públicas, sino un contrato mixto de obras y concesión de obras públicas, tal y como se pone de manifiesto de la lectura del Pliego y contrato, pues la obra de Polideportivo no se remunera con su explotación sino con pagos de Bilbao Kirolak contra certificaciones.⁸

A la vista de ello y para determinar la naturaleza jurídica del contrato y, por ende, si es necesario aplicar los actos preparatorios exigibles a un contrato de concesión de obra pública (el estudio de viabilidad), debe aplicarse el art. 6 del TRLCAP que señala que “Cuando un contrato administrativo contenga prestaciones correspondientes a otro u otros administrativos de distinta clase se atenderá, para su calificación y aplicación de las normas que lo regulen, al carácter de la prestación que tenga más importancia desde el punto de vista económico”.

Pues bien, en este caso es claro que la prestación más importante desde el punto de vista económico es la de construcción del Polideportivo y, por tanto, deben aplicarse a este contrato las normas del contrato de obras y no del de concesión de obras públicas, lo que

⁸ Respuesta del TVCP: El concepto de contrato mixto no existe en el expediente, sin embargo sí existen el de Obras y el de Concesión de Obra Pública. Por ello, se confeccionan dos pliegos debidamente diferenciados. Además, la licitación de una Concesión de Obra Pública exige la inexcusable existencia y aprobación del correspondiente Estudio de Viabilidad sujeto a previa exposición pública.



significa que no es necesario legalmente redactar el estudio de viabilidad previsto en el art. 227 TRLCAP.

ALEGACIÓN

(iii) No se ha realizado la Declaración de Obra nueva a favor del Ayuntamiento de Bilbao como establece el artículo 80 del Pliego de Prescripciones Técnicas.

En relación al comentario del Tribunal relativo a la falta de la Declaración de Obra nueva a favor del Ayuntamiento de Bilbao que establece el artículo 80 del Pliego de Prescripciones Técnicas ésta es una circunstancia que en ningún caso resulta imputable al Consistorio por constituir ésta, de conformidad con el propio artículo 80 de los Pliegos, una obligación del contratista.

En efecto, el artículo 80 del Pliego de Prescripciones Técnicas establece que:

“El adjudicatario a la finalización de las obras y antes de transmitir la cesión de uso realizará la Declaración de Obra nueva a favor del Ayuntamiento de Bilbao, como propietario y en escritura Pública que pueda ser registrable por el citado Ayuntamiento si así lo desea. Los gastos que conlleven serán por parte del Adjudicatario.”

No obstante lo anterior, a solicitud y requerimiento de Bilbao Kirolak el contratista ha hecho entrega el 16 de octubre de 2008 del correspondiente certificado final de obra que se adjunta en los anexos como Documento nº 21, a fin de tramitar e inscribir el bien en el Registro de la Propiedad. Cuestión, por otra parte, que está siendo objeto de cuidadoso seguimiento por parte de Bilbao Kirolak.

ALEGACIÓN

(iv) Hasta la modificación del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) aprobada por Orden Foral nº 1.204/2005, de 2 de septiembre, no se incluye un aparcamiento bajo el equipamiento deportivo de La Peña. Por tanto la licitación de 12 de noviembre de 2003 se realizó al margen de las previsiones del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU).

En respuesta a la afirmación del Tribunal relativa a la imposibilidad urbanística de la construcción de un aparcamiento bajo el equipamiento deportivo de La Peña por falta de previsión del mismo en el PGOU, debe afirmarse que dicha apreciación no es correcta y que no existía obstáculo alguno en el planeamiento urbanístico que impidiese implantar dicho aparcamiento.

En efecto, la inclusión del aparcamiento del polideportivo La Peña no pudo realizarse al margen del PGOU porque el artículo 6.3.64, apartado 2, sobre dotaciones mínimas y máximas en materia de aparcamiento del PGOU entonces vigente y el artículo 6.4.2 sobre el uso de sus Normas Urbanísticas prohibían este tipo de usos de equipamientos solo en el Área



Central, en la que no está incluida el barrio de La Peña en el que se ha construido el Polideportivo.

A este respecto el Tribunal también cita la Modificación del PGOU como el mecanismo de convalidación del aparcamiento de la Peña. También en este caso se produce un error de apreciación del Tribunal, pues la modificación de 2 de septiembre de 2005 del PGOU para “incrementar la oferta de aparcamientos”, no está concebida ni destinada a regularizar el aparcamiento de residentes de La Peña. Es más, en la Memoria se especifica que se aprovecha tal circunstancia modificativa del PGOU para incluir en un nuevo plano todos los aparcamientos públicos existentes o en curso de ejecución, con el único propósito de agrupar todos los datos en un único documento refundido dotado de mayor claridad, se hallasen o no tales instalaciones bajo espacio libre o zona verde.

Conviene también añadir que dicho plano únicamente presenta carácter normativo y, por lo tanto vinculante, en lo relativo a las ubicaciones de los aparcamientos, pero nunca respecto a tamaños de parcelas ni y mucho menos si cabe en lo referente al número concreto de plazas.

Por todo lo expuesto debe concluirse que el aparcamiento para residentes del barrio de La Peña se proyectó y realizó en 2003 con estricto cumplimiento del PGOU.

Todo ello se corrobora con un Informe del Director del Área de Urbanismo y Medio Ambiente, que se adjunta como Documento nº 22.

ALEGACIÓN

(v) La modificación del número de parcelas de aparcamiento fue realizada sin acuerdo del Ayuntamiento y superando las previsiones del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU).

En respuesta a la afirmación del Tribunal, relativa a la inexistencia de acuerdo del Ayuntamiento sobre modificación del número de parcelas de aparcamiento, así como existencia de una superación de las previsiones del PGOU, debe señalarse, en conexión con lo ya expuesto, que el número final de plazas del aparcamiento para residentes de La Peña se ajustaba de forma estricta a lo dispuesto en la normativa urbanística, que para nada implicaba la limitación en número específico de dichas plazas de aparcamiento.

Así pues, efectivamente la definición del número final de parcelas resultantes, no exige acuerdo alguno del Ayuntamiento, por ser estas perfectamente coincidentes con las dimensiones previamente previstas en el acuerdo Plenario de aprobación de Pliegos de Condiciones Técnicas, de 27 de noviembre de 2003, en cuanto al espacio global disponible para dicha finalidad.

El número concreto de plazas de aparcamiento, será el resultante de la aplicación de las distintas normativas que inciden en este tipo de instalaciones, al espacio físico existente, careciendo de toda lógica la pretensión de vincular un resultado final concreto, a la existencia o no de un acuerdo expreso del Ayuntamiento.



Esto no solamente resulta aplicable a una iniciativa municipal, sino igualmente a cualquiera de índole particular.

Finalmente, tal y como se ha adelantado en punto anterior, el PGOU únicamente establecía un número de parcelas mínimas y unas dimensiones máximas por parcela, pero en ningún caso el número máximo de parcelas. Es únicamente el proyecto básico o de ejecución, el instrumento idóneo para definir con total exactitud (y nunca libre de ajustes durante la marcha de la obras) la cantidad exacta de plazas de aparcamiento de vehículos que puede albergar un aparcamiento.

ALEGACIÓN

(vi) En lo relativo al rescate de 77 plazas del parking para residentes de La Peña que conforme al artículo 33 del Pliego de Condiciones Económico Administrativas que rigen la Concesión corresponde al Ayuntamiento:

- a No consta la fiscalización del acuerdo por el que se ejerce el 1º rescate de 58 plazas por parte de la Intervención.*
- b Cuando el Ayuntamiento registró en 2007 las distintas fases presupuestarias de gasto no había transcurrido el plazo de dos años fijado por el artículo 33 del Pliego de Condiciones Económico Administrativas que rigen la Concesión.*

En lo relativo al rescate de las parcelas, resulta evidente que el fin último perseguido por la Junta de Gobierno, a través de la adopción del acuerdo de 26 de diciembre de 2007, no ha sido otro que el de garantizar la suficiencia financiera para el pago del hipotético rescate, con cargo a los créditos disponibles para tal fin en el presupuesto del ejercicio 2007, tomando en consideración, según se recoge en su parte expositiva, la peor de las hipótesis posibles, esto es, que el rescate a llevar a cabo por el Ayuntamiento sería de 77 plazas al precio de 15.930 euros/plaza, lo que totaliza la cantidad de 923.940 euros, teniendo presente, tal y como ha sucedido, que el rescate no se haría efectivo hasta transcurridos los dos años siguientes a la puesta en servicio del aparcamiento, conforme a lo establecido en el artículo 33 del pliego de prescripciones económico-administrativas que sirvió de base a la licitación.

En efecto, la escasa respuesta en la venta de parcelas vislumbraba, ya desde principios 2007, un escenario complicado de liquidación de las mismas en los próximos años. Por tanto, este hecho hacia previsible el inminente ejercicio del rescate comprometido en la cláusula 33 del Pliego de Condiciones Económico - Administrativas de la Concesión, obrando el Ayuntamiento de forma prudente a la hora de incluir en su programación presupuestaria este posible gasto.

Así pues, la Junta de Gobierno, en sesión de 26 de diciembre de 2007, acordó aprovechar la existencia de crédito presupuestario en el ejercicio 2007, en relación con el rescate de 58 plazas de garaje. Sin embargo, no es hasta la sesión celebrada el 5 de septiembre de 2008, en el que la Junta de Gobierno formaliza el rescate mediante el abono del precio, de las 58



primeras parcela y 17 más (77 en total), correspondiente al 50% acordado en el artículo 33 Pliego de Condiciones Económico Administrativas que rigen la Concesión.

ALEGACIÓN

- c. La motivación alegada para el ejercicio del rescate “para utilizarlo como archivo de fondos de las bibliotecas municipales” contraviene la regulación que el PGOU realiza para la concesiones de aparcamiento.*

A este respecto debe manifestarse que el Ayuntamiento no ha tomado decisión alguna firme sobre el destino de las plazas rescatadas. El Tribunal se refiere a una propuesta realizada por un centro directivo del Ayuntamiento que, lógicamente, se estudiará con detalle en todos sus aspectos incluidos, lógicamente, los requisitos o trámites urbanísticos que se exijan.

Por otro lado, estima este Ayuntamiento que la valoración del Tribunal sobre este punto va más allá de sus competencias de fiscalización pues se refiere a un procedimiento todavía en tramitación y que, además, es ajeno al contrato fiscalizado.

ALEGACIÓN

- d. Inexistencia de informe o justificación económica para ejercer conforme al contenido del artículo 33 Pliego de Condiciones Económico administrativas que rigen la Concesión el “rescate de las concesiones sobre aquellas plazas no transmitidas por el adjudicatario”.*

El Ayuntamiento de Bilbao dispone de estudios en función de las distintas zonas de la ciudad, de los precios de parcela que permitan cobrar el coste de construcción.

El riesgo de las operaciones de construcción de aparcamientos es doble:

- De un lado, que no haya licitador, si no se garantiza convenientemente el riesgo económico asumido por el mismo.
- De otro lado, vinculado con lo anterior, que no exista demanda de plazas de aparcamiento.

Para garantizar la situación del contratista, desde siempre se aplican las cláusulas de rescate a estas operaciones, aplicadas de forma sucesiva a todas y cada una de las operaciones de construcción de aparcamientos acometidas por el Ayuntamiento de Bilbao.

Las cláusulas de rescate, no solamente son necesarias y actúan como un seguro de riesgo para el contratista, es decir, garantizan la existencia de un contratista, sino que en la amplia experiencia de construcción de aparcamientos, dicha garantía se materializa cuando se establece en una banda de porcentaje cuasi-estandarizada.



Téngase en cuenta que como bien conoce el Tribunal, la falta de garantía suficiente ha supuesto en este caso concreto, que un primer proceso licitatorio haya resultado fallido, haya quedado desierto.

En definitiva, la cláusula de rescate juega como un seguro de riesgo, que entra en funcionamiento cuando no se venden las parcelas de aparcamiento.

Es decir, el Ayuntamiento hace la función de asegurador, pues si no se da tal cobertura, no hay contratista.





BILBOKO LA PEÑA KIROLDEGIAREN ETA APARKALEKUAREN OBRAREN ESLEIPENA, EXEKUZIOA, HARRERA ETA LIKIDAZIOA FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKO ALEGAZIOAK

ALEGAZIOAK¹

A. "PROIEKTUAREN IDAZKETARI ETA LANAREN ZUZENDARITZA"-RI DAGOKION EMAITZEN ATALA.

1 Epaitegiak adierazten du, Proiektuaren idazketari eta Lanaren zuzendaritzari dagokion txostenaren atalean, derrigorrezko HIRU dokumentu ez daudela jasota: (i) *"Administrazio klausula Pribatuen pleguei buruzko txosten juridikoa*, (ii) *behar adinako kreditu egokiaren existentziari buruzko txostena*" eta (iii) *"kontu-hartzailetzaren alde aurreko fiskalizazioa"*.

ALEGAZIOA

i) *"Administrazio klausula Pribatuen pleguei buruzko txosten juridikoa"-ri buruz.*²

Proiektuaren idazketa eta lanaren zuzendaritzaren lehiaketa bidezko lizitazioan derrigorrezko Administrazio Klausula Pribatuen pleguei buruzko txosten juridikoa falta dela eta Epaitegiak egindako baieztapenari erantzunez, adierazi behar da, ekainaren 16ko 2/2000 Errege-dekretu legegilearen 49.4 artikuluan, zeinetan Herri Administrazioen Kontratuei

¹ Epaitegiak bere horretan eusten dio Behin-behineko txostenaren testuari, izan ere aurkeztu diren alegazio eta agiriek ez baitituzte ondorioak aldarazi, baizik eta Bilboko La Peña kiroldegi eta aparkalekuko lanen esleipen, exekuzio, harrera eta likidazioaren gaineko jokabideak justifikatzea izan baitute helburu. Nolanahi dela ere, Epaitegi honek iritzi hori modu laburrean zehaztuko duen izaera orokorreko adierazpena egin nahi du.

Kiroldegia eraikitzeako proiektua eta Bilboko La Peña aparkalekuaren eraikuntza eta ustiaketaren emakida, hautaketan zein hedaduran inprobisazioa izan du ezaugarri, ase beharreko beharrianak ez baitira alde aurretik zehaztu. Egoera honek exekuzioa eta abian jartzeko prozesua akastunak izatea bideratu dute. Nahiz izaera orokorreko irizpen hau behar hainbatekoa zatekeen Epaitegi honek duen iritzia euskarritzeko, beharrezkoa izan da galdera zehatz batzuei erantzutea, aurrez adierazitakoa euskarritzeaz gain nahasmena sor zezaketen hainbat alderdi argitzeko ere balio dutenak.

² HKEEren erantzuna: Plegu tipoen onespeneren literala, APKLTBra egokitu gabe daudenak, Obra, Zerbitzu eta Horniduretarako Administrazio Klausula Orokorrren Pleguei dagokie eta ez Administrazio Klausula Partikularren Pleguei, ez Obra Publikoen Kontzesio lehiaketei ere. Edonola ere, onetsitako Pleguak Plegu tipoetara egokitzen direlako Txosten juridikoa nahitaezkoa da.



buruzko Legearen Testu Bategina (aurrerantzean HAKLTB) onartzen den, ezarrita dagoenaren arabera, eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 138.ean, zeinek Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean HAKLEO) onartzen duen, ezartzen denaren arabera, aldez aurretik egin beharreko derrigorrezko baldintza orokorra da, izan ere, kontratazio-txostenean “dagokion zerbitzu juridikoaren aurretiko txostena” sartzeari. Hori bai, HAKLTBren 49.4 artikulua baldintza honetan salbuespena egiten du, lizitazioa, dagokion Administrazioak onarturiko “eredu-orriekin” egiten den kasuetarako, HAKLTBren 49.4 artikuluan adierazitakoaren arabera, txosten hori ez baita beharrezkoa.

Hau da, amaiera gisa eta errubrika moduan “Administrazio klausula Pribatuen pleguak” daraman HAKLTBren 49.4 artikulua, salbuespen bat gaineratzen diola arau orokorrari, eta haren arabera, Kontratazio Organoak, dagokion Zerbitzu Juridikoak aldez aurretik egin beharreko derrigorrezko txostena alde batera utzi ahal izango du “eredu-orrien kasuan”, izan ere, halako kasuetan aldez aurretik egiten baita Eredu-orri horien txostena.

Zuzendaritza Batzordeak, 2000ko apirilaren 13an egin zen bileran, eta orduko akta 1. dokumentua izenez eranskinetan agertzen den horretan, hain zuzen ere, aho batez onartu zuen, Bilbao Kirolak –en kontratazio guztietan Bilboko Udalak onartuak dituen eredu-orriak erabiltzea. Horrela bada, Bilbao Kirolak-ek, 2000ko apirilaren 13ko egun horretatik aurrera bere gain hartzen ditu Udalbatzak onartu eta haren zerbitzu juridikoek errebisatu dituzten eredu-orriak “Erakundeak berezkoak dituen zehazpenekin”.

Hau, indarrean zegoen legean egin ziren aldaketen ondorioz gertatu zen, baina betidanik egin izan zen horrela.

Era honetan, Bilbao-Kirolak-en kontratazio guztiak, betidanik, La Peñako Kiroldegiko proiektuaren erredakzio-kontratuaren eta lanen zuzendaritza-kontratuaren lizitaziorako pleguak barne, Autonomiadun Erakundeak egin zituen, Udalak onartu eta Bilbao Kirolak-ek bere egin zituen Administrazio-klausula Pribatuen pleguekin.



ALEGAZIOA

(ii) "behar adinako kreditu egokiaren existentziari buruzko txostena"

Espedientean derrigorrezkoa den behar adinako kreditu egokiari buruzko txostena falta dela eta Epaitegiak egindako oharpenaren aurrean, Erakundeak adierazten du, HAKLTBren 11. artikuluan eta HAKLEOren 138.4.ean ezarrita dagoenaren arabera, egiaztagiria preskripzio teknikoaren dokumentuan sartuko dela, zigilu inprimatuaren bidez.³

Eranskinetan 2. dokumentua izenaz agertuko da, 2001eko abenduan egindako behar adinako kreditu egokiari buruzko informazio-dokumentuaren kopia bat, espedientean geratuko dena. Ikus daitekeenez, dokumentuak eskumako goiko ertzean, Udalak horretarako egokitutako zigilua dauka. Bertan, Kontratazio Saileko Zuzendariak sinatuta, zera adierazten da: (i) gastuaren erreferentzia, (ii) gastua egokituko zaion aurrekontu-saila, (iii) kontabilitateko erregistro data eta (iv) Zuzendariaren sinadura.

Horrela bada, dokumentu horretan agerian uzten dira eskuz idatzitako hurrengo kreditu-erreferentziak:

- (i) gastuaren erreferentzia; "46.900.886 pta."
- (ii) gastua egokituko zaion aurrekontu-saila; "06.4529.622.0101"
- (iii) kontabilitateko erregistro-data; "28.12.2001"
- (iv) Kontratazio Saileko Zuzendariaren sinadura;

Kopuru horiek, dokumentuaren eskumako goiko ertzean adierazten dira txukun-txukun, egokitutako zigiluaren espazioarekin bat etorritz. Honek, behar adinako kreditua egiaztatzeko dokumentuaren funtzioa beteko du.

Horregatik guztiagatik, emandako dokumentazioaren aurrean, eta HAKLTBren 11. artikuluan eta HAKLEOren 138.4.ean aurreikusten denaren arabera, espedienteak, behar adinako kreditu egokiari buruzko derrigorrezkoa zen txostena izan zuen, kontratazioa onartua izan zedin.

³ HKEEren erantzuna: Aipatutako zigilua ez da krediturik badagoelako txostena, kontratazio alorreko Zuzendariak izenpetua baitago eta ez Artekariak, 1986ko "Toki Araubidearen Legea"ren 435 artikuluari baitagokio, 1989ko Toki Ogasunen Legeak balio gabetutakoa, eta existitzen ez den "Fundazio" bati baitagokio.



ALEGAZIOA

(iii) “kontu-hartzaitzaren alde zurrerko fiskalizazioa”

Espedientean derrigorrezkoa den kontu-hartzaitzaren alde zurrerko fiskalizazioari buruzko txostena falta dela-eta, Epaitegiak egindako oharpenaren aurrean, Udal honek adierazten du kontu-hartze hura espedientearen onarpenarekin batera egin zela, Kontseilu Nagusiko partaide den, eta espedientea onartu zeneko saioan bertan izan zen kontu-hartzaitzaren adostasunarekin.

Administrazioaren eraginkortasunarekin zerikusia duten arrazoiengatik, Bilbao Kirolak Autonomiadun Erakundeak gastuaren fiskalizazioa egituratu zuen, kontu-hartzailea aurrean zela eta Kontseilu Nagusi guztietako haren balioespenarekin.

Izan ere, Bilbao Kirolak Autonomiadun Herri-erakundearen Estatutuetao 7. artikulua dioenaren arabera, ondoko hauek osatzen dute Kontseilu Nagusia: beronen presidenteak, Udaleko alderdi politiko bakoitzaren momentuko zinegotzi kopuruaren proportzioan aukeratutako 3 kontseilarik gutxienez, bi bokalek eta hiru laguntzaile teknikok (zuzendari gerentea, idazkaria eta kontu-hartzailea).

Zentzu honetan, 2002ko otsailaren 14ko Zuzendaritza Batzordearen Aktak (eranskinetan 3. dokumentua izenaz sartuta dagoenak) eta 2002ko maiatzaren 3koak (eranskinetan 4. dokumentua izenaz agertzen denak), bertan adierazten den bezala Udaleko kontu-hartzailea partaide izan zuenak, Bilbao Kirolak Autonomiadun Herri Erakundeoko bera izateagatik, argi jasotzen du Zuzendaritza Batzordean hurrengo adosteko erabakia hartu zela:

“La Peñako kiroldegiko lanen proiektuen eta zuzendaritzaren inguruko harremanak zuzenduko dituzten Administrazio klausula Pribatuen Pleguak eta Baldintza Teknikoenak onartzea”. Laburpenean ondo zehazten da 46.900.886.- pta 281880,01.-€-ko lizitazioaren aurrekontu-eredu bat.

2 2003ko irailaren 11ko kontratuaren aldarazpenari dagokionez (Bilbao Kirolak-eko Presidentearen Dekretua), zeinen bitartez proiektuan auzokoen ibilgailuentzako aparkalekua barne sartzen den, Epaitegiak, ondoren erantzun izango diren hiru iritzi ematen ditu:

ALEGAZIOA

(i) Kontuen Epaitegiak adierazten du, Kiroldegiko proiektuaren idazketaren eta lanen zuzendaritzaren kontratuan, aparkaleku baten proiektua (aurrerantz Aldarazpena izango dena) sartzeko egin den aldarazpenak HAKLTBko 55, 54.4 eta 101 artikulua ez betetzea dakarrela.



Merezi du gogoratzea HAKLTBk, kontratuak aldatzearena 101. artikuluan aztertzen duela, ondokoa adierazterakoan: “behin kontratua hobetuta dagoenean, kontratazio-organoak, interes publikoa arrazoi duten aldarazpenak baino ezin izango ditu sartu hura osatzen duten elementuetan, beti ere, beharrizan berriengatik edo ustekabeko kontuengatik direnean, espedienteak behar bezala justifikatuko delarik”.

Beharrizan berriengatik edo ustekabeko kontuengatik interes publikoko arrazoiak izatearena, batu egiten da kasu honetan, espedientearen dokumentazio zabalean argi eta garbi egiaztatzen denez:

- (a) Arrazoi berriak edo ustekabeko kontuak agertzeari dagokionez: 2002an, La Peñako Kiroldegiko proiektuaren erredakzioaren eta lanen zuzendaritzaren jatorrizko proiektua kontratatu zenean, Udalbatzak ez zeukan eginda, Zirkulazio Sailak burututako Mugikortasunaren Ikerketak urtebete beranduago agerian jarri zuen errealitatearen balorazioa. Ikerketa horrek, La Peñako auzokideentzako aparkalekuen eskasiaz ohartarazi zuen, eta horregatik, Zirkulazio Saila ez zen ordura arte kontratatu, La Peñako kiroldegiari begira proiektaturiko azpiegitura aprobetxa zitekeela, La Peñako auzokideek sarritan eskatzen zuten aparkalekuaren beharrari nolabaiteko erantzuna emateko.
- b) Administrazio-kontratu baten baliozko aldarazpena egiteko bigarren baldintza interes publikoko arrazoiak bat etortzea da. Hori dela eta, bi proiektuak gauzatu asmoz, (kiroldegiarena eta aparkalekuarena) juridikoki bideragarriak ziren aukera bi izan ziren gogoan. Hala ere, Udalbatzaren Zirkulazio Sailaren zenbait lantalde teknikotatik, eta Bilbao Kirolak-etik bertatik atera zen ondorioa izan zen, teknikoki modurik eraginkorrena, existitzen zen proiektu baten egitura aprobeztatzea zela, egite-unitatearen gainean nahi den aparkalekua kokatzeko. Horretarako, proiektu biak eraikuntza-unitate berean ezartzeko aukeraren garrantziaz ohartuta, logikarik gabea, teknikoki konplexua eta prozedurari begira bideraezina ematen zuen, bere lur-azpian aparkalekuaren proiektua hartuko zuen kiroldegiaren proiektuaren erredakzioan eta lanen zuzendaritzan esleipendun bat lanean izanda, bigarren hau, hura ez den beste esleipendun batek proiektatua eta egina izatea. Zentzu honetan, beste edozein erabakik, hasierako kontratuari irtenbidea aurkitzera (gastu handiarekin eta epea nabarmen luzatuz) behartuko zuen, proiektugile bakarria kontratatu ahal izateko, zeren bi izatea (bata kiroldegirako eta beste ezberdin bat aparkalekurako) bideraezintzat eta eraginkortasunari begira interes publikoen kontrakotzat jo baitzen proiektu baten kudeaketan.

Horrela bada, interes orokor zorrotzeko aukera-irizpideak gidatuta, 2003ko azaroaren 4an, Gobernu Batzordeak, Udalbatzaren, Zirkulazio Sailaren eta Bilbao Kirolak beraren artean, La Peñan martxan zegoen proiektuaren irismena zabaltzeko garatutako erabakia gauzatu zuen, Bilbao Kirolak-ek kiroldegiaren proiekturako eta zuzendaritzarako kontratatuta zeukan arkitektoen lantalde berari eskatuz bestearen garapenaz eta betearazpenaz arduratzeko ere, horrela, eraikuntza-unitate berean aparkalekua proiektatzeko asmoarekin.



Gai honekin lotuta, Epaitegiak azpimarratzen duen beste gauza bat da kontratuaren Aldarazpenak hasierako prezioarekiko ekarri zuen igoerarena (%89). Honi dagokionez, argitu behar da ez dagoela, ez Epaitegiak aipatutako HAKLTBren artikuluetan, ez gure ordenamendu juridikoaren beste inon, zerbitzuen kontratu baten aldarazpenaren igoeraren zenbatekoari jartzeko inolako mugaketarik, hasieran zeukan prezioarekiko. 101. artikuluan eta HAKLTBren bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa erreferentzia izango da, eta hortik aurrera Administrazioak prozedura berezia eta zehatza bete beharko du, beste elementu batzuen artean, kontratistarekiko audientzia edota oposizio-izapidea bermatzen duena, eta hori errespetatu egin zela argi ikus dezakegu, izan ere, kontratistak berak, erreklamaziorik gabe, idatzi baitzuen proiektuaren gainontzeko guztia.

Aldiberekotasun librearen eta aukera berdintasunaren printzipioei kalte egiteari dagokionez, ezin da hala izaten utzi, izan ere, eraikuntza-unitate bakar bezala ulertu behar den jarduera bat baitago oinarrian, eta, arrazoizko antolaketa baten arabera, bertan ez baitu lekurik bi kontratu ezberdin uztartzeak, bata proiektuaren eta zuzendaritzaren atalei erantzuten diena eta bestea lanak egitearekin zerikusia duena.

Are gehiago, eskaintzen aldiberekotasunak bultzatzea bideraezina izateaz gain, handiagotzea, hasierako kontratuari eusten zioten oinarri berberetan planteatzen da.

Aurrekoa ahaztu gabe eta kontratistak atzeratutako faktura bidali zuen eguna oinarri hartuta (2003ko abuztua), bertan Aldarazpena sartzen duena, Epaitegiak zera ondorioztatzen du; onartu aurretik (2003ko azaroa) egin zitzaiola enkargua kontratistari, horrekin, HAKLTBren 55 eta 54.4 artikuluetan aurreikusitako prozedurazko izapideak bete gabe geratzen direlarik.

Bada, Epaitegiaren baieztapen horren aurrean, Udalbatza honek adierazten du, izatez egia bada faktura hura bidali zeneko data Aldarazpena onartu aurrekoa zela, hau ez zela ordaindu Kontratazio Organoak formalki onartu zuen arte. Hori, kontratistaren beraren ekimena izan zen, konfiantzazko kontratua izanik, aldarazpenaren tramitazioa martxan zegoenez, ezaguna zen errealitateari (proiektuaren aplikazioari) aurrea hartu zion. Hala ere, berriro diogu, faktura hau gorabehera, ez zen ordaindu azaroan kontratuaren aldarazpena onartu zen arte.

ALEGAZIOA

(ii) Kontuen Epaitegiaren iritziz, Aldarazpenaren kostua Bilbao Kirolak-ek hartu zuen bere gain eta ez zuen eraginik izan, obra publikoa emateko kontratuan finkatutako partzelakako prezioan.

Hau horrelaxe da, eta Udal honek uste du, kontratazio publikoaren arautegian inola ere ez dela exijitzen hau bezalako proiektu baten kostuak bere gain hartzea, bakoitzaren eskaintza era diferentean egiten den kontratu ezberdinak direlako (zerbitzuak eta kontzesiodun obrak).

Izan ere, Bilbao Kirolak-ek bi kontratu gauzatu zituen bi momentu ezberdinetan: bata obraren erredakzioarena eta zuzendaritzarena, eta obraren kontzesioarena bigarrena; beraz, helburu eta izaera desberdineko bi kontratu dira.



Eta ez hori bakarrik, Kontratazio Administratiboaren Kontsultarako Batzordeak eusten dion irizpidearen arabera, Administrazio Publiko batek ezin ditu proiektuen kostuak obra baten edo kontzesio baten kontratistaren gain utzi.⁴

Partzelen prezioa merkatzeko udalaren irizpidea izan da, proiektuaren gastua Erakundeak hartzea bere gain, kontuan hartuz, gastu osoaren ondorioz jasotzeko legezko obligaziorik ez dela.

Beste alde batetik, plazen prezioak ez dauka zerikusirik proiektuarekin. Prezio hori lizitatzailerak ematen du, Udalak finkatutako gehienezko prezioa edozein dela ere (balorazio-irizpide hutsa baita). Jendeari saltzeko prezioa da, ez da itzulera bat Udalarentzat.

Are gehiago, baliteke Udalak partzei eraikuntza-kostuarena baino prezio merkeagoa ipintzea, kasu horretan, esleipenduna kontratistari diru-laguntza ematera behartuta legoke.

Beraz, besterik ezean, sustapenerako jarduera bat izango litzateke, Udalak bere gaitasunen ekitaldian egitea erabaki duena, eta Ordenamendu Juridikoarekin bat datorrena.

B "KIROLDEGIAREN ERAIKUNTZA ETA ERAIKUNTZAREN KONTZESIOA ETA AIPATURIKO KIROL-EKIPAMENDUAREN AZPIAN EGOILIARRENTZAKO APARKALEKUAK EGITEKO LANEN USTIAPENA"-RI DAGOKION EMAITZEN ATALA.

1 Kiroldegiaren eraikuntzaren eta egoiliarrentzako aparkalekuak egiteko lanen ustiapenaren eta eraikuntzaren kontzesioaren espediente fiskalizatuari dagokionez, Epaitegiak dio hurrengo dokumentuak falta direla:

ALEGAZIOA

(i) *Proiektuaren derrigorrezko ikuskapena eta obrarako materialen eta unitateen prezioen egokitzapena, horren ondorioz, neurketaren akatsak zuzentzetik sortutako gehitze batean, lanaren zenbatekoa 262 mila euro garestitzen delarik.*

Espedientean derrigorrezkoa den proiektuaren ikuskapena falta dela-eta, eta haren ondorioz gertatzen den 262 mila euroko igoera gogoan hartuta Epaitegiak egindako bi baieztapenei dagokienez, adierazi behar dugu, HAKLTBren 122 eta 128. artikuluetan eta HAKLEOren 136 eta 138.1 artikuluetan eskatzen den proiektuaren ikuskapena, behar bezala egin zutela Bilbao Kirolak-eko zerbitzu teknikoek. Hauek, bere garaian gainbegiratu eta

⁴ HKEEren erantzuna: Bideragarritasunaren azterketa ezak eragin du kostu hau Obra Publikoa Emateko espedientean ez gogoan hartu izana. Honez gain, Udalaren ohiko aribidea proiektuen kostua Obra Publikoen Emakiden bideragarritasun azterketetan barne hartzea da.



ikuskatu zuten, erredakzio horretarako kontratatu zen arkitektoen kanpoko lantaldearen lana. Gainera, ondoren azaltzen den legez, kontratazio-organoak proiektua onartu egin zuten.

Hain zuzen ere, proiektuaren ikuskapena egin izan zela azpimarratzeaz gain, erantsi behar diogu, 262 mila euroko igoerarenak ez zuela inolako zerikusirik izan proiektuaren ikuskapen ezarekin, eta Udal honek azaldu behar du, eranskinetan 5. dokumentua izenaz dagoen 2006ko abenduaren 4ko aldarazpenaren akordioan egiaztatzen denez, aldarazpen hura, proiektu teknikoaren aurrekontuan islatu ez zen gabezia baten ondorioz gertatu zela. Gabeziak, proiektu baten ikuskapenean identifikaekinak diren “*txaparen forjaketa, zutabeak eta hormigoizko habeak*”⁵ kontzeptuekin zeukan zerikusia. Hau da, egiturazko elementuen balorazio ekonomikoa ahaztu zela ohartu ziren eraikuntza-prozesuan, eta izan ere, arazoari konponbidea aurkitzeko onartu ziren aldaketek, ez zuten proiektuaren aldarazpena eragin.

Kontuan izan behar da, Bilbao Kirolak-i proiektuaren ikuskapenik eza egotz lekiokela, eraikitzaileak, aldarazpen bat eskatu izan balu eraikuntza errazteko, prezioa merkatzeko, epea laburtzeko, eta abar. Baina ez da horrela gertatu, proiektuaren aurrekontuan sartu gabeko agiriez ari gara. Bilbao Kirolak-ek eraikitzaileari ordaindu behar dio obra, eta horrela egiten du aurrekontu-esleipenaren igoeraren bidez, desbideratze honen gastuak proiektua egin duenak bere gain hartu beharko dituelarik, bera baita haren arduradun. Bilbao Kirolak-i esker, obrak aurrera egin zuten eta bukatu, epean gorabehera handirik izan gabe eta espediente zigortzailea ireki dio proiektugileari gertaera honengatik, besteak beste.

Hau da, 262.276,07€-ko aldarazpenaren jatorriak, harmailetako hormigoizko eta txapazko forjatuarekin zerikusia duen proiektuaren aurrekontuaren ataleko gabezia bati erantzuten dio, proiektua betearaztean baino agertu ez zen horri. Horregatik bada, aldarazpena erabat antzemanezina, eta Bilbao Kirolak-en Arlo Teknikoak burututako proiektuaren ikuskapenarekin zerikusirik gabea gertatu zen.

ALEGAZIOA

(ii) Kontratazio-organoaren ebazpena, HAKLTBren 122. artikuluan ezarritakoaren arabera proiektua onartzerakoan.

Espedientean Kontratazio-organoaren ebazpena proiektua onartzerakoan falta dela-eta, Epaitegiak egindako baieztapenari erantzunez, adierazi behar da, HAKLTBren 122. artikulua aurreikusten duena betez, proiektua, Administrazio-klausulen Pleguekin batera onartua izan zela, 2003ko azaroaren 12ko Zuzendaritza Batzordearen akordioan. Orduko akta eranskinetan jasota dago 6. dokumentua izenaz.

Aipatu dugun 2003ko azaroaren 12ko akordioa Udalaren Osoko Bilkurara eraman zenean, Kontratazio-organoak, La Peñako kiroldegia eraikitzeko kontratazio-espediente bateratua

⁵ HKEEren erantzuna: Ez da onargarria “gabezia”tzat hartzea pabiloia eusten duten hormigoizko zutoin eta habe eza.



onartu zuen (kiroldegia eraikitzeke lanak eta auzokoentzako aparkalekuak egiteko lanen esplotazioaren eta eraikuntzaren kontzesioa). Proiektua ere haren partaide da eta kontratuko gainontzeko dokumentazioarekin batera sartu zen. Egia da ez zela proiektua eta kontratuko gainontzeko dokumentazioa onartzeko egintza bereizirik izan, baina HAKLTBk ez du exijitzen egintza horiek bananduak edo independenteak izatea, eta, prozesuko ekonomiaren printzipioagatik, Bilbao Kirolak Autonomiadun Erakundeak izapideak egitean, proiektuaren onarpena era honetan tramitatzea erabaki zen.

Horrela bada, aipaturiko akordioan zera adierazten da:

“La Peñako kiroldegia egiteko lanen eraikuntza-proiektua (kiroldegia eraikitzeke lanak eta auzokoentzako aparkalekuak egiteko lanen esplotazioaren eta eraikuntzaren kontzesioa), Bilbao Kirolak-en Zuzendaritza Batzordeak 2003ko azaroaren 12ko ekitaldian onartu zuena, atzeratu egin da, Bilboko Udalaren Osoko Bilkurak hausnar dezan”.⁶

Azaldutakoaren arabera, agerian uzten da Zuzendaritza Batzordeak, HAKLTBren 122. artikuluan ezarrita dagoena betez, La Peñako kiroldegia eraikitzeke lan-proiektua (kiroldegia eraikitzeke lanak eta egoiliarrentzako aparkalekuak egiteko lanen esplotazioaren eta eraikuntzaren kontzesioa) berraztertu eta onartu zuela, eta gainera, Udalaren Osoko Bilkuran horren inguruko informazio osoa eman zuela.

Egia da, izan, proiektuak gabezia batzuk falta zituela, eta hori dela eta, Bilbao Kirolak-ek proiektugileari erantzukizunak eskatzeko prozedura agindu dio, baina Udaletxe hau proiektu hura ikuskatzen hasi zen, legeak agintzen duen bezala, ahaztu gabe, jakina, prozedura horretan, proiektugilearen islan ezin daitekeela akats bat antzeman, egiturazko unitateei dagokien proiektu teknikoaren aurrekontuaren atalean.

ALEGAZIOA

(iii)Proiektuaren alde aurreko zuinketa falta, TRCAPren 122 eta 129 artikuluetan eta HAKLEOren 138.2.an ezarrita dagoenaren arabera.

7. dokumentua izenaz jasotzen da, obran egindako zuinketa egiaztatzeke akta.

⁶ HKEEren erantzuna: Laburpen ustezko literala ez da. Erabakiak ez du paragrafo honetan adierazitakoa zehazten, baizik eta Pleguen onespina soilik eta inola ere ez da proiektuaren onespina egiaztatatu.



Hain zuzen ere, 2004ko ekainaren 1eko Udalaren zuzendaritza teknikoaren zuinketaren aktan ondokoa adierazten da:

“Egindako zuinketa proiektuko dokumentuekin bat datorrela.

-Lurraren erabateko erabilgarritasuna.

-Proiektua guztiz bideragarria dela.”

Eta horrek denak HAKLTBren exigentziak zintzo betetzen ditu.

Beste era bateko kontua da aldez aurreko zuinketaren aktari dagokiona, lurraren erabilgarritasunari, titulartasunari eta proiektuaren bideragarritasunari erreferentzia egiten diona.

Agerian dago ez aipatze hau irismen formaletik harago ez doala, ondoren egiaztatu ahal izan den bezala, eta bestela izaterik ere ez zen, legez eskatzen diren eta obraren zuinketan baieztatu diren baldintza guztiak baitzituen.

ALEGAZIOA

(iv) Administrazio klausula Pribatuen Pleguei buruzko txosten juridikoa, HAKLEOren 138.3 artikulua dioenaren arabera.

Derrigorrezkoa den Administrazio klausula Pribatuen Pleguei buruzko txosten juridikoa falta dela-eta Epaitegiak egiten duen baieztapenari erantzunez, kiroldegia eraikitzeko obraren eta auzokoentzako aparkalekuak egiteko lanen kontzesioaren lehiaketa bidezko lizitazioan, idazki honetako 1.(i) puntuan azaldutakora jo behar dugu berriro ere. Han esaten denez, HAKLTBren 49.4 artikuluan adierazitakoaren arabera, txosten horrek “eredu-orrien kasuan premiagabekotzat bihurtuko du dagokion plegu pribatuarena” , eta horixe da kasu honetan berriro gertatu dena.

ALEGAZIOA

(v) Aldez aurreko fiskalizazioa kontu-hartzearengatik, HAKLTBren 11.2.g) eta 67 artikuluetan, HAKLEO-aren 138.5ean, eta martxoaren 21eko 2/1991 Foru Arauetako Kontu-hartzailearen kontrolari buruzko aginduetan adierazitakoaren arabera. Azken hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontugilea da, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak indargabetua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontugilea.



Eta berriro jo behar dugu idazki honetako 1.(iii) puntuan azaldutakora. Bertan, Zuzendaritza Batzordearen eraketa bereziaz eta Bilbao Kirolak-eko kontu-hartzaileak bertan jarduteaz hitz egiten da, kontu-hartzeko funtzioa Bilbao Kirolak-en eraketa organiko bereziaren arabera egingo delarik.

2003ko azaroaren 12an obraren azken esleipena egiteko aukera eman zuen pleguak onartzeko akta, lehenik eta behin, Zuzendaritza Batzordeak onartu zuen, kontu-hartzailea ere bertako partaide izanik, eta gero, Udaletxeko Osoko Bilkurak berak (6. dokumentua izenez jasotzen da)

ALEGAZIOA

(vi)Esleipenaren argitalpena HAKLTBren 93.2 artikuluan aurreikusten denaren arabera.

Kiroldegia eraikitzeo obraren eta egoiliarrentzako aparkalekuak egiteko lanen emakidaren lehiaketa bidezko lizitazioan, Epaitegiak, esleipenaren argitalpenaren faltari dagokionez izan zuen iritzia dela-eta, esan behar da lizitazioaren emaitza lehiakide bakoitzari banan-banan jakinarazteko erabakia hartu zela, horrela, izapide horrek erantzuna ematen dion helburua betez, hau da, lehiakideei helegitea aurkezteko edo egintza haren aurka egiteko aukera emanaz, besterik gabe, egoki iritziz gero, behintzat (8. dokumentua izenez jasotzen da hau). Jakinarazpen horien barne zeuden (i) esleipenduna, (ii) esleipenaren prezioa, (iii) partzelen irteerako prezio bateratua, (iv) eskatutako bermeak, eta (v) aurka egiteko modua.

Hala ere, egia da, esleipena ez zela publiko egin, HAKLTBren 93. artikulua eskatzen duen bezala. Baina, ondoren Autonomiadun Erakunde honek zuzendu egin du ekintza hau beranduagoko kontratazioetan.

ALEGAZIOA

(vii)Kiroldegia ezartzeko lizentzia, Ikuskizun Publikoen eta Dibertimenduzko Jardueren azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 8. artikulua dioenaren arabera.

Zentzu honetan, 1955eko ekainaren 17an Dekretu bidez onartutako TEZAren 22. artikulua ezartzen du, “industriako eta merkataritzako establezimenduek” baino ez dutela izango irekiera-lizentzia.

Beste alde batetik, Hirigintzako Lizentziei eta haiek Bideratzeari buruzko Udal Ordenantzaren 4. artikulua, aplikazio eremutik, eta beraz, lanen lizentziatik kanpo uzten ditu “Udalaren sail desberdinek bultzaturiko lanak, eta baita haren menpe dauden Erakunde, Elkarte eta gainontzeko guztiek bultzaturikoak ere. Horiek arautegiaren prozedura espezifikoaren eraginpean egongo dira, dagokien hirigintzako kontrolei utzi gabe, Bilboko Ondarearen Batzordearena barne”.



Horregatik, Bilbao Kirolak, Udalaren menpe zegoen Autonomiadun Herri Erakundea den aldetik, exijentzia horretatik kanpo geratzen zen.

Lehen esandakoaren azpian dagoen filosofian sartuta, ohiko jarduna ematen du Udalak bere buruari lizentzia bat ez onartzearenak, mesederik egiten ez badio ere.

Hau, indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen baldintzak betetzen diren ala ez jakiteko, Administrazioak daukan kontrolatzeko berezko jarduera bezala ulertu behar da, denon interesaren defentsan konplimendu hori egiaztatzeko.

Gauzak horrela, lizentziaren dokumentu formala, betetzearen egiaztapen formala baino ez da, udaleko jarduera bat denean alde batera utz daitekeena; ezin dena utzi, indarrean dagoen legeak dakartzan eskakizunen betetze-mailaren egiaztapena da. Azken hau, egitekotan, denon interesa babesteko egin beharko da.

Hori dela eta, guri dagokiguna bezalako instalazioek konplitu egin beharko dute, eta Udal-administrazioak arduratu beharko du, Ikuskizun Publikoen eta Dibertimenduzko Jardueren azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 8. artikuluko eta hurrengoetako eskakizunak bete ditzan, hau da, *“pertsonek eta ondasunen segurtasuna bermatzeko eta, orokorrean, publikoaren babesa ziurtatzeko eta besteei eragozpenak saihesteko behar diren baldintza teknikoak bete ditzaten, kasu bakoitzerako exijitu daitezkeen arauen arabera”*. Horregatik, Udaleko Sail ezberdinek bere eskuduntzako establezimenduko elementu bakoitza ikuskatzen dute, haien egokitzapena eta funtzionamendu ona egiaztatuz, are gehiago, bere egituraren barnean igerilekua edo aparkalekua dauden kiroldegi batez ari garenean.

La Peñako kiroldegiaren kasu zehatzean, kontrol horiek zuzen egin dira, instalazioaren bidezko egokitzapena egiaztatuz.

Horretarako, egindako kontrol-lanaren erakusgarri, La Peña kiroldegiari dagozkion txosten ugari gaineratuko ditugu, ikuskapen-zerbitzu ezberdinen eskutik:

- 1 Aparkalekuaren egokitzapen zuzenari buruz, Babes Zibileko Zuzendaritzaren Prebentziorako Bulegoak egina (9. dokumentua izenaz dago jasota).
- 2 Igerilekuen egokitzapen zuzenari buruz, Osasuna eta Kontsumoa Sailaren Osasungintza eta Garbitasuna Zerbitzuak egina (10. dokumentua izenaz dago jasota).
- 3 Kiroldegiko aireztapenaren eta gasaren egokitzapen zuzenari buruz, Osasuna eta Kontsumoa Sailaren Osasungintza eta Garbitasuna Zerbitzuak egina (11. dokumentua izenaz jasotzen da).

Horregatik guztiagatik, jasotako 9, 10 eta 11 dokumentuak ikusita, argi geratzen da, La Peñako Kiroldegiak, instalazio mota honi aplikatzekoa den arautegiak eskatzen dituen nahitaezko kontrolak izan dituela.



ALEGAZIOA

2. *Fiskalizatzeko obraren betearazpenari dagokionez, Epaitegiak bi gertakizun aipatzen ditu: (i) 676 mila euroko zenbatekora heltzen diren hamar aurrekontu igoera, (ii) betearazpen-epearen hiru luzapen.*

Epaitegiaren lehen gogoetari dagokionez, auzokoentzako aparkalekua egiteko lanen eraikuntzan eta kontzesioan kontratuak izandako hamar aurrekontu igoera direla eta, adierazi behar da, izatez egia den arren aldaketak 2006ko otsaila eta 2007ko urtarrila bitartean burutu zirela hurrenez hurren, denak justifikatu eta bideratu direla behar bezala, HAKLTBren 146. artikulua dioenaren arabera.

Aldaketa kopurua ez da garrantzitsua, aurrekontuan duen ondorioari dagokionez, behar bezala justifikatua eta bideratua bada behintzat. 2006ko urtarrilaren 13an bideratu zen lehenengotik hasita, 2007ko urtarrilaren 16an egin zen azkenera arte, onartutako aldaketak espedientean ondo dokumentatuta daude.

Ondoren, eranskinetan, aldarazpen bakoitzari dagozkion dokumentuak gehituko ditugu:

- 1 Lehen aldarazpena: HAKLTBren 146. artikulua, eta dagozkion Aldarazpen-akordioa, aurrekontu-esleipenaren igoerari buruzko txostena eta prezio kontraesankorren Akta betetzeko aurreikusia. (12. dokumentua izenaz jasotzen da).
- 2 Bigarren aldarazpena: HAKLTBren 146. artikulua, eta dagozkion Aldarazpen-akordioa, aurrekontu-esleipenaren igoerari buruzko txostena eta prezio kontraesankorren Akta betetzeko aurreikusia. (13. dokumentua izenaz jasotzen da).
- 3 Hirugarren aldarazpena: HAKLTBren 146. artikulua, eta dagozkion Aldarazpen-akordioa, aurrekontu-esleipenaren igoerari buruzko txostena eta prezio kontraesankorren Akta betetzeko aurreikusia. (5. dokumentua izenaz jasotzen da).
- 4 Laugarren aldarazpena: HAKLTBren 146. artikulua, eta dagozkion Aldarazpen-akordioa, aurrekontu-esleipenaren igoerari buruzko txostena eta prezio kontraesankorren Akta betetzeko aurreikusia. (14. dokumentua izenaz jasotzen da).
- 5 Bosgarren aldarazpena: HAKLTBren 146. artikulua, eta dagozkion Aldarazpen-akordioa, aurrekontu-esleipenaren igoerari buruzko txostena eta prezio kontraesankorren Akta betetzeko aurreikusia. (15. dokumentua izenaz jasotzen da).
- 6 Seigarren aldarazpena: HAKLTBren 146. artikulua, eta dagozkion Aldarazpen-akordioa, aurrekontu-esleipenaren igoerari buruzko txostena eta prezio kontraesankorren Akta betetzeko aurreikusia. (16. dokumentua izenaz jasotzen da).
- 7 Zazpigarren aldarazpena: HAKLTBren 146. artikulua, eta dagozkion Aldarazpen-akordioa, aurrekontu-esleipenaren igoerari buruzko txostena eta prezio kontraesankorren Akta betetzeko aurreikusia. (17. dokumentua izenaz jasotzen da).
- 8 Zortzigarren aldarazpena: HAKLTBren 146. artikulua, eta dagozkion Aldarazpen-akordioa, aurrekontu-esleipenaren igoerari buruzko txostena eta prezio kontraesankorren Akta betetzeko aurreikusia. (18. dokumentua izenaz jasotzen da).



- 9 Bederatzigarren aldarazpena: HAKLTBren 146. artikulua, eta dagozkion Aldarazpen-akordioa, aurrekontu-esleipenaren igoerari buruzko txostena eta prezio kontraesankorren Akta betetzeko aurreikusia. (19. dokumentua izenaz jasotzen da).
- 10 Hamargarren aldarazpena: HAKLTBren 146. artikulua, eta dagozkion Aldarazpen-akordioa, aurrekontu-esleipenaren igoerari buruzko txostena eta prezio kontraesankorren Akta betetzeko aurreikusia. (20. dokumentua izenaz jasotzen da).

Aurrekoa ikusita esan behar da, obrak izan zituen zailtasunek aldarazpenak eragin bazituzten ere, 10eko kopuruak, Bilbao Kirolak-ek haiek onartzeko exijitutako bakoitzaren justifikazio zehatzari erantzuten diola.

Obviar este procedimiento (aprobación por el órgano competente) dentro de la estructura municipal de Bilbao, es obviar el Reglamento Orgánico Municipal (R.O.M.), principal cuerpo jurídico del Ayuntamiento y sobre el que se sustentan todos los procedimientos internos de funcionamiento, Pleno, Comisiones preparativas de Pleno, expedientes administrativos a disposición de todos los grupos políticos y concejales de los mismos, y cuanta documentación, proyectos, planes y demás textos sean necesarios



para el ejercicio de las funciones jurídico-públicas y técnicas del Ayuntamiento en su totalidad.

- Vuelve a mencionar el informe la ausencia de informe jurídico sobre los Pliegos. Del acuerdo previo de la Junta Rectora de 13 de abril de 2000, (documento 1), cuyo tenor literal no ofrece ningún género de duda, donde se hace la aprobación de los Pliegos Tipo municipales, al acuerdo de 12 de noviembre de 2003, donde, como ya se ha señalado anteriormente, el punto 5 del Orden del Día contiene la aprobación expresa de los Pliegos y las características técnicas, además de con la presencia expresa del Secretario e Interventor, queda sancionada la validación jurídica de los pliegos mencionados.
- El informe sanciona que no consta la fiscalización previa por la intervención.

La lectura detenida y meticulosa del documento 6 (acta de la Junta Rectora de 12 de octubre de 2003), en el punto 5 del Orden del Día, página 19, recoge literalmente:

“Para la financiación de la parte de construcción del polideportivo, existen los siguientes recursos provenientes de la transferencia de capital aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Bilbao, en sesión de enero de 2003, y que alcanza a 4.102.662, correspondiente a los siguientes años:

2003 1.782.147 euros; reservados en documento A 3733, de 10 de marzo de 2003.

2004 1.547.010 euros.

2005 773.505 euros.”

Documento A 3733, de 10 de marzo de 2003, que hace referencia a la Autorización de Gasto fiscalizado previamente por el órgano competente para hacer frente a la licitación del expediente presente.

En técnica contable-presupuestaria y fiscalizadora, es la reserva de crédito necesaria para proceder posteriormente a la fase D, adjudicación.

- El informe recoge la ausencia de la licencia de establecimiento, a tenor de la Ley 4/1995, de 10 de noviembre, como un incumplimiento de legalidad.

La Ordenanza Municipal sobre licencias urbanísticas y su tramitación, excluye de su ámbito de aplicación las obras promovidas por las distintas áreas municipales, así como por las Entidades, Sociedades, y demás Organismos dependientes del mismo.

El Ayuntamiento, en base al concepto de licencia de establecimiento, sería solicitante y concedente. De la acreditación de documentos 9, 10 y 11, el polideportivo de La Peña ha contado con los preceptivos controles exigidos por la normativa.

- En relación con la ejecución del contrato se recoge en el apartado de conclusiones, el aumento de presupuesto como consecuencia de 10 modificados al contrato original. No parece acreditado el incumplimiento de legalidad de los mismos, ya que todos ellos han sido tramitados y justificados conforme al contenido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. (Documentos 12 al 20). Procede por tanto, la supresión del literal del mismo.



- El informe del TVCP/HKEE cuestiona la legalidad de la encomienda municipal a Bilbao Kirolak para licitar la concesión del aparcamiento porque no existe un acto administrativo expreso del Ayuntamiento.

Tal afirmación queda rebatida de la lectura de los documentos 6 y 23, ya mencionados anteriormente y de las explicaciones y argumentos esgrimidos por este ponente. Volver a recalcar, una vez más, que la Junta Rectora de Bilbao Kirolak tiene la misma representación política que el Pleno municipal.

- Debe eliminarse la ausencia de estudio de viabilidad porque el expediente presente es un contrato único de naturaleza mixta que engloba obras de construcción del polideportivo y concesión de la construcción y explotación del aparcamiento para residentes, pero en el que prevalece el primero por el volumen en el importe de la licitación, tal y como recoge el artículo 6 del TCAP, donde se dice que "... prima el carácter de la prestación que tenga más importancia desde el punto de vista económico."

En este caso hay un único proceso licitatorio, un único contrato, una única adjudicación y un único adjudicatario. Lo contrario requeriría procesos licitadores paralelos, un doble contrato y una doble adjudicación, por lo que el estudio de viabilidad derivado del TRCP no es preceptivo.

- Se cuestiona la legalidad de la licitación porque se hace al margen del PGOU, cuando es público y notorio que dicha licitación era sobre terrenos de titularidad pública municipal y la calificación urbanística era de equipamental, que posibilitaba la construcción tanto en vuelo, suelo y bajo rasante (subsuelo), tanto de polideportivo, centro de salud, centro de distrito o equipamiento cultural y aparcamiento.

En ningún momento de la vida administrativa municipal de este expediente se ha objetado tal licitación ni por los miembros de la Junta Rectora de Bilbao Kirolak ni por los miembros del Pleno municipal ni por los órganos de apoyo a los mismos como la Secretaría General o el Interventor municipal.

Todo este expediente, como así se ha puesto de manifiesto, ha estado a disposición de todos los grupos políticos municipales en las Comisiones Preparatorias de Pleno, de acuerdo todo ello con el R.O.M.

- Vuelve a cuestionarse la legalidad de la modificación del número de parcelas del aparcamiento por superar las previsiones del PGOU en ese momento. Señalar al respecto que lo que aprueba el Pleno municipal de 27 de noviembre de 2003 es un espacio global disponible para dicha finalidad, siendo, sin embargo, la determinación del número de parcelas lo que al respecto se lleve a cabo en la ejecución real del proyecto.
- El cuestionamiento de legalidad en la operación de rescate de 77 plazas de aparcamiento debe recoger el acuerdo de la Junta de Gobierno de 5 de septiembre de 2008, en el que se acuerda el abono del precio, una vez ya transcurrido el plazo de dos años para ejercitar el rescate.



Debe eliminarse la referencia al destino de archivo, toda vez que no hay tomada decisión firme sobre el destino de las plazas rescatadas, tal como consta en la alegación presentada por el Ayuntamiento.

5. **Respecto de las contestaciones incluidas al documento como consecuencia de las alegaciones presentadas por el Ayuntamiento de Bilbao.**

El contenido de la nota 1 a modo de contestación general a las alegaciones presentadas, recoge una consideración de carácter general que puede ser tratada como una conclusión más a incorporar al informe conocido por este Tribunal y como consecuencia de ello, un nuevo trámite de alegaciones para la entidad fiscalizada, el Ayuntamiento de Bilbao.

El carácter público de los informes del TVCP y por consiguiente, del ahora debatido y cuestionado, una vez sancionado con su publicación oficial, cerrará la posibilidad del principio de defensa para el Ayuntamiento con la inclusión de esta consideración en el informe tratado, no habiendo dado el trámite de audiencia al ente fiscalizado. Por todo ello, debe ser suprimido y eliminado del informe definitivo dado que causa indefensión al Ayuntamiento de Bilbao.

POR TODO ELLO,

El informe debiera haber sido retirado y reelaborado, teniendo en cuenta las ideas y pronunciamientos antes transcritos.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de septiembre de 2009

Eusebio Melero Beaskoetxea
Consejero del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas
Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Kontseilaria



BOTO PARTIKULARRA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN KONTSEILARI DEN BEGOÑA MARIJUAN ARCOCHA ANDREAK "BILBOKO LA PEÑA KIROLDEGI ETA APARKALEKUKO OBRAREN ESLEIPENA, EXEKUZIOA, HARRERA ETA LIKIDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI" JARRITAKOA, ZEINARI JOSÉ M^a GORORDO BILBAO ETA EUSEBIO MELERO BEASKOETXEA KONTSEILARI JAUNAK ATXIKI ZAIZKION, BEHIN-BETIKO 2009-KO IRAILAREN 22-KO OSOKO BILKURAN ONETSI ZENA.

Boto honen bitartez goiburuan aipatutako Fiskalizazio Txostena onesteko 2009ko irailaren 22ko Osoko bilkuran hartutako erabakiarekiko desadostasuna adierazteko izan ditudan arrazoiak argitu nahi ditut, honako arrazoi hauek tartete:

1. Txostenak bi kontraturen fiskalizazio lana besarkatzen du, obra idazketa eta zuzendaritzari dagokiona bata, eta La Peña kiroldegi eta aparkalekuaren obra kontratuari dagokiona, bestea. Bigarren kontratu hau Epaitegi honek Bilboko Udalaren 2004ko ekitaldiari zegokion Kontuaren gaineko fiskalizazio txostenean fiskalizatu zuen, 2006ko abenduaren 19ko Osokoaren erabakiz aho batez onetsi zena; horren gaineko xehetasunak txostenaren 116 eta 117. orrialdeetan jaso ziren eta ondorioak txosten honetan jasotakoekiko guztiz bestelakoak dira; baita Bilboko Udalak alegatu dituenekiko ere.

Txosten honetan jasotako akats adierazgarrienak eta HKEEk 2004ko txostenean zuzenbidearekiko bidezko iritzi zituenak, Pleguen erredakzio, horien onespene eta dagokion txosten juridikoari buruzkoak dira. Halaber, txosten hartan zuzenbidearekiko egoki iritzi zitzaion kontratua obrazko kontratu modura izapidetu izanari, ezen obra eta kontzesioko kontratu mistoa baitzen eta bertan, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 6. artikuluari jarraiki, ikuspegi ekonomikotik nabarmen gailentzen baitzen obra kontratuaren izaera. Txosten honek ez du manu hori aintzat hartu eta administrazioari bi kontratu motaren betekizun guztiak eta bakoitza betetzeko eskatu zaio.

Egoera honek ziurtasun juridiko eza sortzen die fiskalizazio-gai diren erakundeei Epaitegiak onesten dituen txostenen gainean eta ezin da inola ere justifikatu, are gehiago txosten hauek idatzi dituen lantaldea eta Kontseilaria bat bera izanik.

2. Bilboko Udalak egindako alegazioetan orri-oinetan erantzuna jaso da, txostenaren ondorio orokor izaera duena, ez alderatu, ez egiaztatu ez dena, objektibotasun eza duena eta Udalari alegatzen uzten ez zaiona.

3. Proiektuaren erredakzio eta obraren zuzendaritza kontratuan artekariaren kontrol eza jartzen da auzitan; ordea, Udalak alegazioekin batera igorri duen dokumentazioan



artekarian ez zuen inongo oztoporik jarri pleguak 2002ko otsailaren 14ko Zuzendaritza Batzordeak onesteko eta bere kontrolaren ebidentzia argi uzten du 2002ko maiatzaren 3ko esleipen proposamenaren aktan.

4. Txostenak lege-haustetzat jotzen du obra publikoaren kontzesio kontratuan zehaztutako lursailen prezioan eraginik ez izatea proiektuaren erredakzio eta zuzendaritza kontratuaren aldaketak; baina, alde batetik obra proiektuaren kontratazioa dugu eta bestetik, eraikuntza kontratuarena eta Administrazio Kontratazioaren Aholkularitza Batzordeak mamitutako txostenek kontrako iritzia plazaratu dute behin eta berriz (26/99, 51/99, 1/03, 26/04 espedienteak). Ez da inongo lege-hausterik egon denik egiaztatu eta honenbestez, aurkeztu den alegazioa onartzea dagokio.

5. Lege-haustetzat jotzen da kiroldegiarentzat ezarpen-eskaera eza, Ikuskizun Publiko eta Jolas Jardueren gaineko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 8. artikulua xedatzen duenari jarraiki. Txostenak zehazten ez duena da ez-betetzea formazkoa baizik ez dela, izan ere, eskatzailea eta emalea erakunde bat bera baitira eta alegazioetan txertaturiko agirietan egiaztatu den modura lizentzia eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak eskuratu baitira.

6. Ondorioen paragrafoetan auzitan jartzen da obren exekuzio kontratuari aldaketak egitearen legezotasuna, 676 mila euroko zenbatekoa egiten dutena; ordea, ez da egiaztatu inongo lege-hausterik egin denik, aldaketa bakun eta guztiak behar bezala justifikatuak zeudela frogatu baita, kontratazio arautegiari jarraiki izapidetu direla eta kopuruak (esleipen prezioaren gainean % 18) ez du kontratuaren bolumen ekonomikoa itxuraldatzen.

Jokamolde hau gaurdaino Epaitegian ezarri den irizpide orokorraz bestelakoa da, akats modura jasotzen baitu aldaketak egitea baldin eta APKLTBren 101. artikuluan aurreikusitakoaren arabera izapidetu ez badira, aldaketek aurrekontuaren ehuneko handia eragiten dutenean, APKLTBn jasotako lizitazio printzipioak urratzen dituela eta azkenik, kontratu aldaketak gastua exekutatu ondoren onesten direnean, APKLTBren 59, 101 eta 146. artikuluetako alde aurreko betekizunak gorde gabe.

7. Eraikuntza lanaren lizitazioaren legezotasuna auzitan jartzen da, kiroldegi azpian eraikitako aparkalekua zehaztasunez jasotzen duen HAPOren aldaketa, eraikuntza lana baino beranduagokoa dela irizten diolako. Ez da adierazi udal jabetzako lursail hori ekipamenduetarako aurreikusia dagoela, ez dago legezko mugarik gunen nagusiz kanpo garaje tokiak dituzten ekipamenduak eraikitzeko (HAPOren 6.3.64 artikulua, 2. atala eta



6.4.2, hirigintzako bere arauen erabilerari buruzkoa). Gerora HAPOn jaso izanak ez du esan nahi lehenagoko jarduera bat baliozkotu denik, baizik eta jokamoldeari segurtasun juridiko handiago eman nahi izan zaiola.

Bestalde, zalantzan jarri da aparkaleku kopuruaren aldaketa, HAPOn adierazitakoak 1ean gainditu zituenak eta 2tan esleipenean aurreikusi zirenak. Adierazpen honen aurka nago erabat, Lurzoruaren Euskal Legearen 62. artikuluan jasotako HAPOn edukia, xehetasunezko antolamenduari dagokionean, lerrokadura eta sestra-lerroei dagokiela ulertzen baitut eta ez lursail kopuruei, xehetasunezko azterketa eta exekuzio proiektuetan e.a. jasotzen direnak. Azkenik, HAPOk, alegazioetan adierazitakoari jarraiki, partzela kopuru gutxienekoa eta horien gehieneko neurriak finkatzen zituen, exekuzio proiektua izaki horiek zehazteko baliabide egokia.

8. 77 aparkaleku berrerostearen legezkotasuna auzitan jartzen da, gastua finkatutako bi urteko epea amaitu aurretik erregistratu zelako, baina ez da zehaztu horren ordainketa ez zela 2008ko irailaren 5era arte gauzatu, Baldintza Ekonomiko Administrazioen Pleguen 33. artikuluan finkatutako bi urteak behin igaroak zirela.

9. Garaje plazak udal liburutegien funtsen artxibo modura erabiltzeko helburua auzitan jartzen da, udalak horren gainean ez duela inongo erabakirik hartu alegatzen denean.

Azaldutako arrazoi guzti hauengatik, txostena erretiratu eta egokitu egin beharko litzatekeela uste dut, Udalak aurkeztutako alegazioen aurrean eta aurreko idatz-zatietan azaldutako arrazonamenduei jarraiki.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko irailaren 23an





BOTO PARTIKULARRA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN KONTSEILARI DEN JOSÉ M^a GORORDO BILBAO JAUNAK “BILBOKO LA PEÑA KIROLDEGI ETA APARKALEKUKO OBRAREN ESLEIPENA, EXEKUZIOA, HARRERA ETA LIKIDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI” JARRITAKOA, ZEINARI BEGOÑA MARIJUAN ARCOCHA ETA EUSEBIO MELERO BEASKOETXEA KONTSEILARI JAUN-ANDREAK ATXIKI ZAIZKION, BEHIN-BETIKO 2009-KO IRAILAREN 22-KO OSOKO BILKURAN ONETSI ZENA. “BILBOKO LA PEÑA KIROLDEGI ETA APARKALEKUKO OBRAREN ESLEIPENA, EXEKUZIOA, HARRERA ETA LIKIDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENA”, BEHIN-BETIKO 2009-KO IRAILAREN 22-KO OSOKO BILKURAN ONETSI ZENA.

Begiramen osoz, ez nator bat 2009ko irailaren 22ko Osokoa hartutako erabakiarekin, txostenean –ene ustez- Epaitegiaren iritzia izan behar zukeenaz guztiz bestelako moduan bideratu diren ondoko auziei dagokienez.

ALDEZ AURREKO AUZI-GAIA

Fiskalizazio Txostenaren zabalari dagokionez, 2004ko abenduaren 31 aurretiko lanaren esleipenari buruzko guztia Bilboko Udalaren 2004ko urteko txostenean fiskalizatu zen, Osoko honek orduan onetsi zuena.

Hori dela eta, ezabatu egin behar da honako txosten honetatik, jada aurrez fiskalizatua izan delako.

Auditoria egintza eta informazio beraren gainean errepikatu izanaren aurrekaririk ez dago; ez dira birritan auditatu behar, bi aldi ezberdinetan, jarduera berberak, nola eta -txostenaren hitzaurrean egoki azaldurik- hori egitea justifikatuko luketen datu zein gertakari berriak agertuko ez balira eta ez da hori kasua.

Are gutxiago ulertzen da, oraingoan gertatu den legez, ondorioak ezberdinak izatea, ez baita bestelako ondoriorik justifika lezakeen ondorengo gertakaririk jazo.

Hori dela-eta, gertakari edo datu berririk eman ez denez gero, esleipenaren fiskalizazioa aurreko Txostenera berariaz igorrita egin ahal izango litzateke soilik.

FORMA ETA ESTILO ALDERDIAK

Ez nator bat Txostenaren 1, 2 eta 3 zenbakiko orri-oinetako oharrekin.

Erabilgarri gerta liteke baldin eta ohikoz besteko antolamenduen arau, lege, erregelamendu edo bestelako legezko xedapenak balira, baina Administrazio Publikoetako kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 120, 220.1 eta 227.2 eta 3. artikulua hitzez hitz ekartzea, hiru horiek soil-soilik, eta ekarri gabe uztea testu bateratu bereko 11, 93.2, 55, 54.4, 67, 101, 122 y 128 artikulua, Administrazio Publikoetako kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 138. artikulua, edota Ikuskizun publiko eta jolas-jarduerei buruzko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 8. eta hurrengo artikulua, Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Bateratuaren 15 eta 55 artikulua, besteak beste, bidezko ez den motibazio apetsuari soilik egotz dakioko.



Baldin eta, ondorio dialektiko hutsetarako, txostengileak artikulu horien besteekiko garrantzia handiagoa azpimarratu izan balu, eta ez da hau kasua, irtenbide tekniko egokiena indartze paragrafoa izango zatekeen edo, baita, hitzez hitzeko aipamen laburra ere.

Hainbat artikuluren hitzez hitzeko aipamena eta Txostenean zenbakiz aipatzen diren beste askorekiko isilunea, ez da inolako arrazoi logikoren ondorio eta kendu egin beharko zatekeen.

Berebat, “HKEEren erantzuna” esaldia ezabatu behar zatekeen, orri-oinetako oharren hasieran, ez baitakar ezer berririk eta bi iritzi aurkatzen direla baitirudi; ordea, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen eta otsailaren 5eko 1/1988 Legearen arabera, Herri-Kontuen Euskal Epaitegia “Euskal Sektore Publikoaren ekonomia-finantza eta kontularitzako jardueren atal fiskalizatzaile gorena” da eta honenbestez, Fiskalizazio Txostenean jasotako iritzia ez zaio inongo aurkakotasun edo alderaketari meneratzen eta ez da eta ezin daiteke errekurtsio-gai izan.

EDUKIZKO AUZI-GAI BERARIAZKOAK

1. EPAITEGIAK FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN ALEGAZIOEI EMANDAKO AZALPENEZ

Iritzi orokor modura adierazi behar dut, fiskalizazio-gai izan den erakundeak aurkeztutako alegazioek -jardueren justifikazio edo argibidetzat har daitekeen bat edo beste salbuetsita-, aintzat hartu behar ziratekeen egiaztapen eta argudio sendoak besarkatzen dituztela.

Fiskalizazio-gai izan den erakundeari entzutea, fiskalizatutako erakundeen izapide saihestezina eta eskubide besterenezina da eta Epaitegiarentzat obligazioa hori errespetatzea. Honi dagokionez, antolamendu juridikoak alegazioen testua errespetatu eta Txostenetan jasotzeko derrigortasuna finkatzen du; izapide hori saiheste hutsa ere, dagokion errekurtsioa jartzeko bide bakartzat aurreikusten da.

Alegatzeko eskubidearekiko hain begiruneko eta bermatzaile izanik Legea, 1 zenbakiko oharra den bezainbateko ohar orokor eta arduragabeak, alegazioen multzoari erantzun emateko denak, ez dezake Kontuen Epaitegiaren inongo Txostenetan lekurik izan, Epaitegiak alegazioak onartu edo ez eta horiei erantzuna eman edo ez emateko duen eskumena kaltetu gabe.

Ene iritzira, zentzugabea da -txostenean egiten den modura-, alegazioen multzoaz iritzizko deskalifikazioa jasotzea, inongo legezko oinarririk gabe, gehiago baita alderdi politikoaren, Udaltzaren, oposizioaren edo hiritarren euren politika, betiere iritzizko eta eztabaidagarri dena.

Ez zen beharrezko deskalifikazioa, ezen alegazioetarik bat bera ere ez onartzeak jada erakusten zuen Epaitegiaren gehiengoaren iritzira, ez zirela alegazioak, baizik eta justifikazio edo argibide hutsak soilik. Ez zen egoki, ez komenigarri ere paragrafo bat inongo aurrekaririk gabe barne hartzea, mehatxutzat hartu baitaiteke.

Horregatik, 17. orrialdeko orri-oineko oharrak ez du inongo zentzurik eta aurrekari txarra da Kontuen Epaitegiaren txostenentzat.



Txostenean orri-oinetan emandako beste zenbait erantzunetan, ene ustez, neurrizkoagoa behar zukeen hizkuntza erabiltzen da: ez diot egoki irizten Epaitegitik esateari “Udalaren ohiko jokamoldea obra publikoko emakiden bideragarritasun azterlanetan proiektuen kostua barne hartzea da” (4. oharra), edota “onartezina da *gabeziat* hartzea pabiloiari eusten dioten zutabe eta hormigoizko habe eza” (5. oharra).

2. BILBAO KIROLAK-EN IZAERA JURIDIKOAZ

Fiskalizazio txostenak ez du aintzakotzat hartu oinarritzkoa den kontu bat, hartu izan balu, berez, fiskalizatutako erakundearen alegazio gehienak onartzea ekarriko zukeena.

Alegia, Bilbao Kirolak erakundearen izaeraz ari gara, bai alderdi juridikoari dagokionez, bai Zuzendaritza Batzordearen osaerari, zuzendaritza karguei eta auditoria-gai izan diren egintzei erreferentzia egiten dieten akten analisiari dagokionez ere.

Lehenik eta bat esan behar dugu Erakunde Autonomo hori udalaren jabetzakoa dela % 100ean eta Udal talde guztiak, bai Gobernuak, bai oposizioan daudenak ere, Zuzendaritza Batzordearen kide direla, ordezkotza proportzionalari eutsiz. Erabakiak bertaratutako bokal guztien adostasun osoz hartu ziren eta Idazkari lanetan (erabakien legezketasuna gordetzeko arduradun tekniko gorena) Bilboko Udal Goreneko Idazkari den hura aritu zen eta aurrean zegoen Erakunde horretako Funtsen Artekaria, ekonomia-aurrekontuen erabaketan aholkulari den aldetik.

3. FISKALIZATUTAKO JARDUERAZ

3.1. Dokumentazioan jasoa dago edukari eta prozedurari dagokionez hartutako erabakia Batzordeko Bokal guztiek babestu zutela, salbuespenik gabe, gobernua zein oposizioa ordezkatzeko zutela.

Ez dago ez aholkulari ekonomikoaren, ez Artekariaren, ez Idazkariaren balizko lege-hausteen, ikuskaritza ezaren, ez eta prozedurazko edo edukizko bestelako irregulartasunen gaineko inongo oharpenik.

Halaber, Alderdi Politikoen ordezkarien aldetik ez dago erabakiaren aurkako inongo iritzirik, ez edukari, ez prozedurari dagokionez eta guztiek dute hitza eta botoa emateko eskubidea.

Egiaz, “Bilbao Kirolak-Instituto Municipal de Deportes de Bilbao” Toki Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Batzordearen bilera agirian, 2003ko azaroaren 12an egindakoan, honako hau dago jasoa (6 zk.ko agiriaren 18tik 20ra bitarteko orrialdeak):”*la Gerencia expone a los reunidos, de forma amplia y pormenorizada, todo el camino administrativo que ha seguido esta licitación que en una primera fase quedó desierta*”

“*Todos los presentes en la reunión son conscientes de la inexistencia de crédito suficiente en el presupuesto actual de Bilbao Kirolak..toda vez que la ejecución se llevará a cabo en el próximo ejercicio*”, por lo que “*procedería la aplicación del art. 69.4 de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas y someter el expediente a*



la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del contrato”.

Se insiste en la necesidad de cumplimiento de las obligaciones legales; “...*toda vez que tal clausulado supone la futura asunción de una obligación por parte del Ayuntamiento de Bilbao, debería trasladarse el expediente al área correspondiente de la Corporación a fin de que proceda a la tramitación que al efecto proceda”.*

Eta ondotik, akordioaren aipua, hitzez-hitzezkoa:

*“Por ello se propone, como **así se acuerda por todos los presentes**, la aprobación de los nuevos Pliegos de Condiciones tal y como han quedado precedentemente explicitados y la elevación de los nuevos Pliegos al Pleno municipal para su aprobación definitiva y al objeto de que el Ayuntamiento asuma las obligaciones que se deriven de la aplicación del Nuevo Pliego, único sistema para poder financiar la construcción del Polideportivo de La Peña”.*

Akordioa, nolabait kalifikatzekotan “zuhurra” dela esango genuke (Udalak bilera horretan mahairatu eta jasoak dauden obligazioak bere gain hartzea), bertaratutakoek aho batez onartua (salbuespenik gabe alderdi politiko guztiak ordezkatzuz), Artekariaren eta Idazkariaren presentzia eta jarduketarekin, inongo legezko eragozpenik adierazi ez dutela.

3.2. Dokumentazioan jaso dago edukari eta prozedurari dagokionez hartutako erabakia Bilboko Udal gorenaren Osoko kide guztiek babestu zutela, albuespenik gabe, gobernu zain oposizioa ordezkatzeko zutela.

Horrela, bada, 2003ko azaroaren 27ko osoko bilkuran aho batez onetsi zen “La Peña Kirolegia Eraikitzeko Lanen kontratazio espedientean barne hartutako aparkalekuaren emakidari dagokion ekonomia-administratioko baldintzen Plegua (kirolegia eraikitzeko lanak eta egoiliarrentzat ibilgailuen aparkalekurako obren emakida)”.

Udalaren Osoko bilkuretan, bistakoa den legez, Idazkariak eta Artekariak dihardute egiteko horietan, Zuzendaritza Batzordean zeuden berberak. Bietarik inork ere ez zuen jarraitutako prozedurari zegokionez inongo lege-hauste edo arau-urratzeen adierazpen txikiarik ere egin.

Gaineratu beharra dago, gainera, Osoko bilkura aurretik dagokion Prestakuntza Bilera egin zela eta bertan, nahitaez, Udal Talde guztiak daudela bertan eta Aztergai Zerrendan barne hartutako gai bakoitzari buruzko dokumentazioa zinegotzi guztien eskura dagoela Udal Erregelamendu Organikoak agintzen duen aurrerapenarekin.

Egia da Osokoaren adostasunak eta erabakiaren aurkako iritzirik ezak, ez ikuspegi tekniko-administratibotik, ez erabakiaren zuzentasun edo egokitasunari dagokionez, ez duela indarreko legezketasuna gorde dela bermatzen. Egia da, baina, inguruabar horrek berak Epaitegiko Txostenaren ondorio gehienek balioa zalantzan jartzen duela. Hain zuzen ere, gainbegiratze ezari, inprobisazioari edota ase beharreko beharizanen alde aurreko definizio beharrezkoa ez izateari buruzko adierazpideek, guztiak ere txostenean jasoak, jada adierazi dudan legez, ez dute inongo errealismo eta zuhurtasunik.



3.3. Ez dago adierazitako prozeduran esku hartu dutenen aldetik jarritako inongo administrazio-errekurtsorik, ez auzi-administraziokorik ere.

Horregatik guztiagatik:

Nekez uler daiteke Fiskalizazio txostenean inguruabar hauei inongo erreferentziarik ez egitea, hartutako erabakiak testuingurura ekartzen dituztenak eta indarra guztien adostasunean, teknikan eta politikan jartzen dutenak, Txostenean nabarmen saihesten dena.

Eta are gutxiago ulertzen da, aldiz, berariaz aipatzea ez dagoela proiektuaren “ikuskaritzarik” edota Artekariaren aldetik “aldez aurreko fiskalizaziorik”, edota azpimarratu diren kreditu egoki eta behar hainbatekorik izateari buruzko zalantzak, baldin eta gogoan hartzen bada bai Artekaria, bai Udalaren Idazkaria, hau da, erabakien legezkontasuna zaintzeko arduradun goren direnak (krediturik badela, ikuskaritza, aldez aurreko fiskalizazioa eta bestelako obligazioak) Bilbao Kirolak zuzendaritza atalaren kide zirela.

Gertakarien errealitateari egokitzen ez zaion boluntarismo hutsa da esatea ez dagoela “proiektuaren nahitaezko ikuskapenik, horren helburua lege edo arauzko izaera duten xedapen orokorrak bete direla egiaztatzea izanik” (Txostenaren 6. orrialdea), ez dagoela “Artekaritzaren aldez aurreko fiskalizaziorik, horren helburua administrazioko espedientea ezargarri zaien xedapenei egokitzen zaiela egiaztatzea izanik” (5. orrialdea); eta hori guztia erakunde autonomo batean, oso-osorik jabetza udalarena duena, zeinetan legezkontasuna zaintzeko ardura handieneko karguak Udalaren Osokoan kargu horiek betetzen dituzten berberak betetzen dituztela eta zeinetan udalaren indar politiko guztiak dauden, non prozedura osoan zehar ez den adierazpen neurrigabeko horiek euskarrituko dituen iritzi ez juridiko-ekonomiko, ez politikorik adierazi.

4. HAINBAT ALEGAZIORI EMANDAKO TRATAMENDUA

Agerikoa da fiskalizatutako erakundearen alegazioen azterketa literal hutsak, aurreko irizpenak aintzat hartuz gero, fiskalizazio-gai izan den erakundearen alegazio gehienak onartzea ekarriko zukeela, orri-oinean aipatzen diren bi kontseilariak aurkeztu dituzten boto partikularretan ageri den legez, eta honenbestez, laburraren mesedetan eta biak irakurri ostean, horiei atxikitzen natzaie.

HORREGATIK GUZTIAGATIK,

txostena aurrez adierazitako ideiak eta erabakiak aintzat hartuta erretiratu eta berregin behar zatekeen.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko irailaren 23an.





BOTO PARTIKULARRA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN KONTSEILARI DEN EUSEBIO MELERO BEASKOETXEA JAUNAK "BILBOKO LA PEÑA KIROLDEGI ETA APARKALEKUKO OBRAREN ESLEIPENA, EXEKUZIOA, HARRERA ETA LIKIDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI" JARRITAKOA, ZEINARI BEGOÑA MARIJUAN ARCOCHA ETA JOSÉ M^a GORORDO BILBAO KONTSEILARI JAUN-ANDREAK ATXIKI ZAIZKION, BEHIN-BETIKO 2009-KO IRAILAREN 22-KO OSOKO BILKURAN ONETSI ZENA.

HKEEren Osokoak, 2009ko irailaren 22an egindako bilkuran, goiburuan adierazitako fiskalizazio txostena onesteko erabakia hartu du eta Kontseilari honek bilkura hartan jakinarazi zuen legez, txosten horren edukiarekiko desadostasunen ondorioz gaurkoan boto partikular hau jaulkitzen du, eta hori guztia, honako irizpen eta gertakari hauek oinarri hartuta:

1. Adierazpen honek Kontseilari honen irizpidea du oinarri, Osoko bilkuran jada adierazitako hainbat zioen baturak osatutakoa; hona hemen horiek:
 - Bilboko Udalak aurkeztutako alegazioen azterketa eta analisisa eta erakunde horrek aurkeztutako agirien alderaketa eta egiaztaketa, 1etik 23ra bitartean zenbakituak eta guztiak ere Kontseilari ororen eskura jarriak.
 - Kode Zibilaren 3. artikulua aipagai dituen arau juridikoen ezarpena, hitzez hitz zera dioena: "arauak hitzek testuinguruarekiko duten berezko adieraren arabera interpretatuko dira, aurrekari historiko eta legegintzazkoen arabera eta ezarri behar diren garaiko giza errealitatearen arabera, duten izaera eta helburuari formalki eutsiz".
 - Zuzenbidearen printzipio orokorrak.
2. Txostena eta alegazioak eztabaidatu zirenean Begoña Marijuán Arcocha Kontseilariak alde aurreko auzi modura HKEEk 2004an Bilboko Udalaren fiskalizazioaren gainean izan zuen jokamoldea mahairatu zuen, 2006ko abenduaren 19an HKEEren osokoak onetsi zuena. Bertan, Bilbao Kirolak erakunde autonomoari zegokionez, "La Peña kiroldegiaren eraikuntza" lanaren kontratua fiskalizatu zen. Fiskalizazio horrek txostenaren 116-117 orrialdeetan jasotako hainbat akats besarkatzen zituen.

Kontseilari honek Lehendakariari eskatu zion Osokoan onesteko aurkeztu zen txostena etenda utz zezala eta ez zezala horren gaineko inongo ekintza formalik gauzatu, harik eta txosten berria 2004an aurrez egindakora egokitu ez zedin bitartean, jada epaitutako gauzaren printzipioa ezarri, batik bat, eztabaidan aurkeztutako datuetatik eratorri denean egungo txostena eta 2004koa idatzi zuen taldea bat bera izan dela, buru den Kontseilaria ere bera izaki.



Epaitutako gauzaren printzipioa Zuzenbide Prozesalaren institutua da, segurtasun juridikoaren babes modura jarria, ezen hura gabe ebazpenetan ziurgabetasun juridikoa sortuko bailitzateke. HKEEK txosten berria egin du Bilboko Udalaren gainean, subjektuaren nortasuna, xedea eta kausa bat bera izanik.

Aurkeztutako proposamena bozkatu eta gaitzetsia izan zen eta honenbestez, 2004ko txostena sustraitik eraldatu zen, izan ere oraingo txostena baliatuta iritzi berriak gaineratu baitzaizkio orduko hari, aurrez fiskalizatutako kontratuaren balioa zalantzan jartzen dutenak, hala nola Administrazio Klausula Partikularren Pleguari buruzko auziak (idazkera, onespina eta txosten juridikoa), kontratuaren izaera juridikoa aldatzeaz gain (obra kontratua, APKLTBren 6. artikulua ezartzea, e.a.).

3. Proiektuaren idazkeraz eta obra zuzendaritzaz

- Txostenean aipatu da espedientean ez daudela jasoak Administrazio Klausula Partikularren Pleguei buruzko txosten juridikoak, ez kreditu egoki eta behar adinakorik badagoelako txostenik, ez Artekariaren alde aurreko fiskalizaziorik ere.

1 zk.ko dokumentua (Kirolaren Udal Institutuaren/KUI Zuzendaritza Batzordearen akta, 2000ko apirilaren 13koa) eta 3 zk.ko dokumentua (Kirolaren Udal Institutuaren/KUI Zuzendaritza Batzordearen akta, 2002ko otsailaren 14koa) alderatzetik ondorioztatzen da Zuzendaritza Batzordeak aho batez Bilbao Kirolak-en obra, zerbitzu eta hornigaietarako kontratazioko Klausula Partikularren Plegu orokorrak onestea erabaki du, Erakundearentzat berariazko gerta daitezen ezaugarriekin, Udalaren Osokoak horren gainean egin zuen onspen berari jarraiki, 53/99 legea indarrean sartu izanaren ondorioz (22. eta 23. orr., 1. zk.ko dokumentua).

Honez gain, Administrazio Klausula Partikularren Pleguak eta Baldintza Teknikoenak ere aho batez onartu ziren, Alde Zahar eta La Peña kiroldegiak eraikitzeko egitasmoetan eta obra zuzendaritzetan buru egingo dutenak, biak ere lehiaketa prozedurari jarraiki (11. orr., 3. agiria). Agiri horren 9. orriak aipatutako kontratazioaren laburpen bat barne hartzen du, kontratu mota, lehiaketa mota, exekuzio epea, proposamenak aurkezteko epea, lehiatzaileen sailkapena eta horien dokumentazioa, esleipenerako baloraketa irizpideak, behin-betiko bermea eta berme epea bereiziz.

Bilbao Kirolak erakundeari aholkularitza juridikoa ematea Erakundearen Idazkariari dagokio, Udalbatzaren Idazkaria edo eskuordetzen duen Zuzenbidean Lizentziatu titulua duen erakundeko langilea izan ohi dena.

Erakundeko Artekariaren –aldi berean Bilboko Udalaren artekari dena- edo eskuordetzen duen funtzionarioaren egitekoak, ekonomia-finantzazko eta aurrekontuzko kudeaketaren kontrola eta barne fiskalizazioa dira.

Aipatutako ekintzetan ez dago erasota eragozpen, oztopo, legez kontrakotasun akats edo behar hainbateko krediturik ez dagoelako inongo oharrik, ez gastuaren egiteko fiskalizatzailearen, ez Zuzendaritza Batzordearen erabaki formalei legezko babesa emateko fede-emaile publikoen aldetik, eta honenbestez, alegazio horiek baitetsi egin behar dira.



- HKEEren txostenak dio proiektu eta obra zuzendaritzaren kontratu aldaketaren kostua ez zela obra publikoa emateko kontratuan zehaztutako partzelako prezioan jasanarazi.

Honen gainean Udalak egindako alegazioan adierazitakoa berresten dut, zera, partzelaren prezioa lehiatzaileak finkatzen duela, Udalak zehaztutako prezio gehienekoa alde batera, eta ez dagoela proiektuen kostuak kontratistari jasanarazi behar izateko legezko obligaziorik, Administrazio Kontratazioarako Aholkularitza Batzordearen irizpenek erakusten duten moduan.

Suposamendu honetan, beraz, aurkeztutako alegazioa onartzea dagokio, udal jarduera zuzenbidearen arabera gauzatu baita.

4. Kiroldegiaren eraikuntzaz eta aparkalekuaren emakidaz.

- Txostenak dio ez dagoela proiektua onesten duen kontratazio atalaren ebazpenik; ordea, 6. dokumentua (2003ko azaroaren 12ko Zuzendaritza Batzordearen akta) geldiro irakurritz gero ikus daiteke Aztergai Zerrendaren 5. atalean bertaratutako kide guztiek, Idazkariaren eta Artekariaren presentziarekin, erabaki zutela La Peña kiroldegia eraikitzeko pleguaren onespren proposamena egitea eta klausulatuaren laburpen taula txertatzen da, kontratu moldea, lizitazio aurrekontua, exekuzio epea, proposamenak emateko epea, lehiatzaileen sailkapen eta erantsitako dokumentazioa, baloraketa irizpideak, behin-behineko eta behin-betiko bermea eta berme-epea barne hartzen dituen. Zuzendaritza Batzordearen erabakiak, beraz, kontratazio espedientearen onspena dakar, eta horietako agiri bat nahitaez proiektu teknikoa da, lizitazioaren ezaugarri tekniko nagusienak laburbiltzen dituen; horren lehiaketarik egin gabe ezinezkoa da obra bat lizitazioan ateratzea.

Hein berean zigortzen du Udalbatzak Bilbao Kirolak-en Zuzendaritza Batzordearen aho batekotasuna 2003ko azaroaren 27an egindako bilkuran, bertako aktan erasota dagoen moduan; izan ere, Aztergai Zerrendaren 32. atalean eta Hezkuntza, Gazteria eta Kirolak alorrari dagokionez -zeinaren baitako zen Bilbao Kirolak erakundea- honako hitzez hitzeko edukia onetsi baitzen:

“Primero.- Aprobar el Pliego de prescripciones económico-administrativas de la concesión del aparcamiento incluido en el expediente de contratación de obras de construcción del polideportivo de La Peña (obras de construcción del polideportivo y concesión de obras del aparcamiento de vehículos para residentes).

Segundo.- Notificar esta resolución a Bilbao Kirolak a fin de que proceda a tramitar el expediente de contratación.”

Bilboko udal egituraren barruan prozedura hau saihestea (eskumena duen atalak onestea) Udal Erregelamendu Organikoa (UEO) saihestea da, Udalaren atal juridiko nagusi dena; honen gainean euskarritzen dira funtzionamenduko barne prozedura guztiak, Osokoa, Osoko bilkurak prestatzeko Batzordeak, talde politiko eta zinegotzi guztien eskurako espediente administratiboak eta Udalaren egiteko juridiko-publiko eta teknikoaren arribiderako beharrezko diren dokumentazio, egitasmo, plan eta gainerako testuak.



- Txostenak berriz Pleguen gaineko txosten juridikorik ez dagoela aipatzen du. 2000ko apirilaren 13ko Zuzendaritza Batzordearen alde aurreko akordiotik (1 zk.ko dokumentua), hitzez hitzeko edukiak zalantza izpirik uzten ez duela, non udal Plegu Ereduzkoak onesten diren, 2003ko azaroaren 12ko erabakira, jada aurrez adierazi dugun bezala, Aztergai Zerrendaren 5. atalak Pleguen eta ezaugarri teknikoen berariazko onespena besarkatzen duena, Idazkariaren eta Artekariaren presentzia berenberegikoarekin, berretsia geratzen da aipatutako pleguen balioztatze juridikoa.
- Txostenak berresten du artekaritzaren alde aurreko fiskalizaziorik ez dagoela erasota.
6. agiria zehaztasunez eta artaz irakurriz gero (2003ko urriaren 12ko Zuzendaritza Batzordearen akta), Aztergai Zerrendaren 5. atalean, 19. orrialdean, hitzez hitz zera dio:
“Para la financiación de la parte de construcción del polideportivo, existen los siguientes recursos provenientes de la transferencia de capital aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Bilbao, en sesión de enero de 2003, y que alcanza a 4.102.662, correspondiente a los siguientes años:
2003 1.782.147 euros; reservados en documento A 3733, de 10 de marzo de 2003.
2004 1.547.010 euros.
2005 773.505 euros.”
2003ko martxoaren 10eko A 3733 agiria, honako espediente honen lizitazioari aurre egiteko eskumena duen atalak alde aurretik fiskalizatutako Gastu Baimenari erreferentzia egiten diona.
Kontularitza-aurrekontu eta fiskalizazioko aribidean, gerora D faseari, esleipenari, ekiteko beharrezko den kreditu erreserba da.
- Txostenak ezarpen lizentzia eza, azaroaren 10eko 4/1995 Legearen arabera, lege-hauste modura jasotzen du.
Hirigintzako lizentziei eta izapideari buruzko Udal Ordenantzak ezarpen esparruz kanpo uzten ditu udal alor ezberdinek sustatutako lanak eta baita bere meneko diren Entitate, Sozietate eta gainerako Erakundeek sustatutakoak ere.
Udala, ezarpen lizentziaren kontzeptua oinarri hartuta, eskatzaile eta emaile izango zatekeen. 9, 10 eta 11 agiriak egiaztatzearekin, La Peña kiroldegia araudiak eskatzen dituen nahitaezko kontrolak izan ditu.
- Kontratuaren exekuzioari dagokionez, ondorioen atalean jaso da aurrekontua areagotu egin dela jatorrizko kontratuan 10 aldaketa egin izanaren ondorioz. Badirudi ez dagoela egiaztatua horien lege-haustea, guztiak ere Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen edukiri jarraiki izapidetu eta justifikatu baitira. (12tik 20ra bitarteko agiriak). Honenbestez, horren literala kentzea da egokia.



- HKEEren txostenak zalantzan jartzen du Bilbao Kirolak-i aparkalekuaren emakida lehiatzeko egindako udal-aginduaren legezkotasuna, udalaren berariazko egintza administratiborik ez dagoelako.

Adierazpen horri jada aurrez aipatutako 6. eta 23. agirien irakurketak egiten die aurka ; baita txostengile honek mahairatutako azalpen eta argudioek ere. Berriz adierazi nahi dut, Bilbao Kirolak-en Zuzendaritza Batzordeak Udalbatzak duen ordezkartza politiko bera duela.

- Kendu egin behar da bideragarritasun azterketarik ez dagoela , espediente hau izaera mistoa duen kontratu bakarra baita, kiroldegia eraikitzeke lanak eta egoiliarrentzat aparkalekuaren eraikuntza eta ustiapenaren emakida besarkatzen dituen; ordea, lehenengoa nagusitu da lizitazioaren zenbatekoan duen bolumenagatik, AKPTren 6. artikulua jasotzen duen moduan, "... ikuspegi ekonomikoa oinarri hartuta garrantzia handien duen prestazioaren izaera nagusituko da" esaten baita.

Kasu honetan lizitazio prozesu bakarra, kontratu bakarra, esleipen bakarra eta esleipen hartzaile bakarra dago. Aurkakoak lizitazio prozesu paraleloak behar lituzke, kontratu bikoitza eta esleipen bikoitza eta honenbestez, KPTBtik eratorritako bideragarritasun azterketa ez da nahitaezkoa.

- Lizitazioaren legezkotasuna auzitan jartzen da HAPOz beste egin delako; baina, publikoa eta guztiez jakina da lizitazio hori udalaren jabetza publikoko lursailen gainean egin zela eta hirigintzako kalifikazioa ekipamenduzkoa zela, airean, zoruan eta sestrapean (lur azpian) eraikitzea bideratzen zuena, bai kiroldegia, osasun zentroa, barruti gunea edo kultur ekipamendua eta aparkalekua.

Espediente honen udal bizitza administratiboko inongo unetan ez da lizitazio hori eragotzi, ez Bilbao Kirolak-en Zuzendaritza Batzordeko kideek, ez Udalbatzako kideek, ezta horiek babesteko atalek ere, Idazkaritza Nagusiak edo Udal Artekariak, kasu.

Espediente hau guztia, agerian utzi den legez, udal talde politiko guztien eskura egon da Osoko Batzorde Prestatzaileetan, guztia UEOaren arabera.

- Berriz ere jarri da auzitan aparkalekuko partzela kopurua aldatu izanaren legezkotasuna, une horretan HAPOk egindako aurreikuspenak gainditzeagatik. Horren gainean esan behar da 2003ko azaroaren 27ko Udalbatzak onetsi duena helburu horretarako erabilgarri dagoen espazio global bat dela eta zehazten den partzela kopurua izango dela proiektuaren egiazko exekuzioan gauzatuko dena.

- 77 aparkaleku berrerosteko eragiketaren legezkotasuna auzitan jartzeak 2008ko irailaren 5eko Gobernu Batzordearen erabakia barne hartu behar du, zeinetan berrerostea gauzatzeko bi urteko epea behin igaroa delarik, prezioa ordaintzeko erabakia hartzen baita.

Ezabatu egin behar da artxiboaren destinoari egiten zaion erreferentzia, izan ere, ez baita erabaki irmorik hartu erreskatatutako aparkalekuen norakoaz, Udalak aurkeztutako alegazioan ageri den legez.



1. Bilboko Udalak aurkeztutako alegazioen ondorioz jasotako erantzunei dagokienez.

Aurkeztutako alegazioei erantzun orokor modura ematen zaien 1. oharraren edukiak izaera orokorreko irizpena besarkatzen du, Epaitegi honek ezagun duen txostenari txertatu beharreko ondorio bat gehiago modura hartua izan daitekeena eta horren ondorioz, fiskalizazio-gai den erakundearentzat, Bilboko Udalarentzat, alegazioetarako izapide berri modura.

HKEEren txostenek duten izaera publikoak eta honenbestez, orain eztabaida-gai eta auzi-gai dugun honenak, behin ofizialki argitara ematen denean berretsia delarik, Udalari bere burua defendatzeko printzipioa erabiltzeko aukera eragotziko dio auzi-gai den txostenean irizpen hau barne hartuta, fiskalizazio-gai den erakundeari audientzia izapidea eman ez diola. Horregatik guztiagatik, ezabatu eta kendu egin behar da behinbetiko txostenetik, Bilboko Udala babesik gabe uzten baitu.

HORREGATIK GUZTIAGATIK,

Txostena jaso eta berregin egin behar zatekeen, aurrez adierazitako ideiak eta erabakiak aintzat hartuta.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 23a

Eusebio Melero Beaskoetxea
Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Kontseilaria